


VI URTEA - II-III ZENBAKIA

1925 YÓRAÍLA-IRAIÑA

EUSKERA

EUSKALTZAINDIA'REN LAN ETA AGIRIAK
TRABAJOS Y ACTAS DE LA ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
TRAVAUX ET ACTES DE L'ACADEMIE DE LA LANGUE BASQUE



BILBO'N

Euskaltzaindia'ren etxearen
Ribera, 18

DONOSTIA'N

San Iñazio'ren Gutundegian
Garibay, 28

EUSKO-ARGITALDARIA

BANCO DE ESPAÑA, 3

BILBAO, 1925

TXUKUNERIA

(Azkue jaunaren lana)

**INFORME ACERCA DE UN DICCIONARIO DE LA
CONJUGACIÓN EUSKÉRICA EN LOS ESCRITOS DE
LOS SIGLOS XVI Y XVII**

(A. Olabide'ren txostena)

**MELIBEO TA TITIRO'REN ARTEKO ALKAŔ - IZKETA
(Luzio Aregi'ren lana)**

I. J. Y.

(Altube jaunaren txostena)

**EUSKALTZAINDIA'REN LAUGAŘEN URTEKO
BATZAŔ - AGIRIAK**

**FLEXIONES VERBALES DE USO ACTUAL EN
LEGAZPIA (GOYERI)**

(Bäher Urgazlearen lana)

**EUSKALTZAINDIA'REN BOSTGAŘEN URTEKO
BATZAŔ - AGIRIAK**

**BIZKAI'KO EUSKERAREN ETA, BATEZ BE, BERE
ADIZPIAKERAREN ALDAKUNTZAK**

(Eguskitza jaunaren txostena)

TXUKUNERIA

1. *Txukuneria ta Katharinitis* zer diran.—2. Zer-gatik ni erizain.—3. Nere EUSKAL-IZKINDEA.—4. Eri sendatua.—5. A. Soloeta-ren *Ensayo de la unificación de dialectos baskos*. Lautzuk bere gai berienak.
- 6. *Lenengo gaia*: Aditz muñak (núcleos verbales). *Za* beste muñ askoren ordez.—7. Beste izkeretako muñ-aldatzeak: erderaz ta latinezkoak.—8. *Bigařen gaia*: izenordeko-adizkiak (elementos pronominales del verbo). Adizkizunak (elementos objetivos).—9. A. Soloetaren ustezko *d, z, j, l, tz: etortzen da, zaít, jat, litzake* ta *ikusten deutzazu*.—10. Adizki egileak (agentes).—11. Adizki arkaia (elementos recipientes del verbo).—12. *Gizonak, gizonak, gizonak, gizonak!*—13. Irugařen gaia.—14. Laugařen gaia.—15. Izuria euskeraren eráietan orain eta len; edo gaurko txukuneria ta orduko *panvasquismo*. Astarloa ta Larramendi.—16. Tiberius, Segismundo, Federico aundia ta Napoleonen emazte Eugenia.—17. Lekeitioko Elizan.—18. Il-yantzia.—19. Kopurudi leneratua (Numeración restaurada).—20. Bide onera.

TXUKUNERIA

1. Orain zar edo beintzat zaxko geranok mutil gazte ginanean, etzan monja erizainik kalerik kale egun auetan bezela ikusten. Gaitz itsaskoën bat — esaterako, baztanga naiz sukarustela (tifus) — norbaitek zuenean, len gaitz oriek izandako bat edo bat eramaten zioten gaixoari laguntzat... Baztangadunen etxearen aurpegi zulatudun gizon bat bein baino sariago ikusi dugu aterzain.

Liburutxo onek, *Ensayo de la unificación de dialectos baskos* (1) deritzaion gufun onek gaitz itsaskor bat du beronen oñi-artearen. Gaitz oñi, izuria (peste) bezela zabaltzen eraiza izanañen, ezta ordea ez baztanga ez sukar ustela. Patologia bat ez batean eztugu irakurtzen gaitz onen izenik. *Txukuneria* luke euskeraz izen egokia. Hipokratesek ezagutu balu, *katharinitis* izena zezakean. (*Katharina* badakizute, gizonak, *Purificación* da). Helesponto-aldeko izkeraz *katharinitis* ta gure *txukuneria* erderaz «enfermedad de purismo» bezela dira.

Y el lenguaje restaurado aprenderán escritores y lectores sin dificultad de ningún género dio liburuxko onen egile Argentinan Euskaletxeko irakasle dan A. Soloeta-Dimak.

2. Beronen oñiak irakurtzen asi ta laxter, erdi aspertua nintzalarik, neronen buruari galde au egin nion. «*Zer dala-ta bizkaeratu* otedidate lan au ira-

(1) *Ensayo...* por el P. Soloeta-Dima, capuchino, profesor de Euskal-etxea (Argentina).

kurtzeko arloa neri, onelako asmotarako zaletasunik eztudan oni?» Erantzunik etzetorkidan. Bestetorri batzuren berri artu nuenean, paríñiz erantzun au eman nion lengo galde orri. «Ik ere gaztetxo intzanean ireñ zainetan ta batez ere lumatxoan txukuneria izan uelako eta baztanga bein izan duenak bigarrenez iza-tent ezomenduelako, ofréngatik eman diatek eri-arteko egikizun au. Ezadi ordea bildur izan, ezadi kikildu, eri onezaz ezaiz ilko ta ekiok gogoz lanari» ta lanari gogoz ekin diot.

3. Difudan urteon yabe erdizka ere enintzan, onen antzeko lan bat egin nuenean, *Euskal izkindea* ezári nion izentzat. Sei-zazpi, edo argiroago adierazteko, sei-zazpitzuk ziran nere *katharinitis* ark zituen txukunketak. Bizkaiko *naz-az-da-gara-zara-zaree-dira-ren* ordez nik *nai-ai-dai-gaiz-zaiz-daiz* erabiltzen nituen. *Dot-dok-don...* ta lagunen tokian *daut-dauk daun-dau-daugu-dauzu-dae*.

Nere izkuntza artan *zu* beti zan «vosotros». Eŕegeak edozein taket diruz yantziri apaingarítzat eta anima gizentzeko *Conde ta Marqués* izenak eman oi dizkie. Nik *Conde ta Marqués* oiei itz egiteko *i* artu nuen. Ingelesak beren *thou* ta *you* aiezaz egiten dutena nik bestera egin nuen gure *i* ta *zu* artuta. Aiek Yaungoikoari soil-soilik esaten diote *thou*, gure *i*; *you* aldiz larunbat-iluntzeten bildu oi dituzten whisky -zaleai ere *you = zu*. Nere izkinde artan *zu* Jaungoikoarentzakoa zan, beste izaki guzientzat *i*.

Egun auetan batzuk erabiltzen dutenez nik ere *eztaki, ezpedi egon, ezpaleki, ezkoaz, etzaitez* «para el vulgo» utzita, *ezdaki, ezbedi egon, ezbaleki, ezo-goaz, ezzaitez* erabiltzen nituen. Arako len aipatu ditudan *daut-dauk-daun-dau* erakutsita gero itz auek ezári nituen : *diarteaz ezdau laguntzaile biralkoian*

irabiamen guztiak onelan erakusten = El vulgo no suele manifestar de este modo todas las conjugaciones del verbo transitivo (1).

4. Gizonak: itz auek idazti nituenean ile-adats osoaren yabe nintzan, ogei ta sei urte zituen nere izan ta izateak. Barkatu beraz. Egia da ta burua zurizten asi-orduko ezagutu nuen, Dodgson euskalariak irakatsita edo, nere izkuntza etzela *Vascuence, Azkuence* zela; eta liburu hura argitaratzeko dirua ugari eralki ta txautu izanañen, nere ikasleen artean urte batez ere enuen izkinde hura sañarazi.

Sar gaitezten orain A. Soloeta-Dimaren txukunketa-artean.

5. Eun ta irurogei ta amar ofialde ditu A. Soloetaren gutuntxoak eta beste ainbeste bear izango nituke bere eritzi guziak zearo azaltzeko. Oretarako ezkenuke euskaltzainok izango, ez nik lan ori egiteko ez nere lagunak entzuteko, astirik. Bere irakaspen bikain ta berienak artuko ditut: Lautzuk dira auek nere ustez: Auñena, aditz-muñak (núcleos verbales); bigañena, izenordeko-adizkiak (elementos pronominales del verbo); irugañena, izenorde gizakiak (pronombres personales); laugañena, izenorde erakusleak (pronombres demostrativos).

6. LENENGO GAIA. Aditz-muñak (núcleos verbales) aldatzen dirala ta aldakuntze au inolaz ere ezin onetsi dezakegula, ezin ontzat ar ditzakegula, dio. *El cambio de núcleos... no se puede admitir en buena ley...* (pág. 11). *Etorri naiz, etorri dira, etorri ginan, etorri bedi.* Bost muñ auen ordez bat artu nai luke A. Soloeta-Dimak, aldatzaka ta beti berdin erabiltzeko aditz-muñ bakaña: za. *Flexiones absolutas del presente*

(1) *Euskal-izkipidea*, pág. 190.

de indicativo auek omendira: *etortzen daza yo vengó, etortzen kaza tú, varón, vienes, etortzen naza tú, mujer, vienes, etortzen laza él viene, etortzen gaza nosotros venimos, etortzen zaza vosotros venís, etortzen tzaza ellos vienen.* (Pág. 84). *Kaza ta bero-nen lagun bitxi auek aditz bidalkoiez (transitivoakin) ere erabiltzea nai luke A. Soloetak: ikusten daza yo veo, ikusten kaza tú, hombre, ves... eta ikusten tzaza ellos ven.* (Pág. 128). Formas absolutas de subjuntivo (pág. 101): *etorí dazan que yo venga, etorí kazan que tú, hombre, vengas eta onela nazan, lazan, gazan, zazan ta tzazan.* Flexiones absolutas del imperativo (pág. 106): *etorí kaza ven tú, hombre; etorí naza ven tú, mujer; etorí zaza venid vosotros.* Eta onelaxe *za* da beti euskalki berí auen aditz-muña.

7. Beste izkera askotan ere muñak aldatzen ikus-ten ditugu: batean *quiero*, bestean *queremos*, bestean *quise*; batean *pongo*, bestean *ponemos*, bestean *pusierón*; *quepo, cabemos ta cupieron...* eta beste eun. Aditz urgazlean berean iru aldakuntze ditu/gutxienez erderak: *he, había ta hube.* Eta au gora-bera erde-razko aditza aisa ta berera (cómoadamente) bizi da gizonen buruan. Aurák *componió compuso-ren or-dez, quise-ren tokian querí, puesto-tzat ponido esan* oi dute; baina ezpañ-gainean bizaŕa erne-orduko, ezpañ-petik erortzen zaizkate *componió, querí ta ponido* oriek.

A. Soloetak euskeraren leneratzea (restauración) ta euskera leneratua (euskerá restaurado) oŕialde as-kotan aipatzen ditu. ¿Nork daki, ordea, len, asieran, gure euskera au nola itz egiten zan? Dena dela, txukunketa ta leneratze ori asi-orduko, saialdi bat erde-raz egin zezakean liburuxko onen egileak. Erderazko aldakuntze oriek kendu al badira, euskerazkoak ere

asi (len nolakoa zen yakinezkero); erderazkoak ezin badira, euskerazkoai ere paketan utzi. Au irakurtzean Buenos Aires-ko euskalariak esan lezake: *izkera oñau ezdaza deurea* (izkera ori ezta nerea), *erdera oñaren yabe tzazanak ar lazatela sail oñau tzeuen gain* (erdera oñen yabe diranak ar bezate sail ori beren gain). Nik ordea neronen aldetik esango nioke: mundu zabalean izkera bat bada, ezpainez ezpain efi-izkera bezela bizi eztena: antzinako éromaíena. Izkera oretan ere onelako muñ-aldatzeak ugari dakuskigu. Gure *eraman* izkera oretan *ferre* da. Guk eztugu oñen muña aldatzen: *daramat, neraman, eraman dut*. Latinoak aldiz *fero, tuli, latum* iru muñ dituzte. Guk *zerbait dagit* eta oretara *egina naiz* esan oi dugu, aiek aldiz bi muñez *facio ta fio* diote. Izkera au Elizan nolabait bizi da. A. Soloetak eta nik ezin dezaiokegu arotz bati bezela izkera ori so egin (begiratu), gerontzat ar dezakegu. Asi gaitezten *Lógica*, berak ain maite duen *Lógica* ori, latin-izkeran sartzen eta auferantzean *fero tuli latum-en* ordez *fero-ferivif-feritum* esan dezagun; *facio ta fio-ren* ordez *facio ta facior*; *cado aditzari* ere bere bi aldakuntze *cecidi ta cassum* oriek kendu ta *cadivi ta caditum* ezarri.

Onezaz gainera beste oar bat egin dezakegu. Euskeraz bi aditz dira soil-soilik muñ aldakordunak, bi urgazleak: *izan ta ukana*. (A. Soloetaren usbez bakar bat dira auek.) Latinez eunetik gora badirala esango nuke muña aldatzen duten aditzak. Au gora-bera inork, nik dakidala, etzuen inoiz gogotan artu izango aditz orientan muñ bakaára erabili bear dela. *El cambio de núcleos no se puede admitir en buena ley* esan duen tokian *el cambio de núcleos es y ha sido irremisiblemente admitido* ezarri bear zuen bere liburu txoan gure urgazle Buenos-Aires-koak.

8. BIGAÑEN GAIA. Izenordeko-adizkiak (elementos pronominales del verbo) irutzuk dira: *adizkizunak* (objetivos), *arkiak* (recipientes) eta *egileak* (activos). *Nator ta nakus, az* (Eŕonkarin *yaz*, Benapaŕoan *hiz* tú eres) *ta oa* (Napaŕoako alde batzuetan *yae* tú vas), *dator ta dakus, gatoz ta gara, zatoz ta zara, zatozte ta zare* naiz *zarete, datoza dabilz*; eta gainera *zetoŕen, betor ta letorke*. Or dira lenengo adizki izenordekoak, *pasivos*: *n* lenengoa, bigaŕena toki batzuetan *y*, beste batzuetan *h* (geinetan ezta agertzen), irugaŕenak *d, z, b* ta *l*; eta gero *g, z* ta berfiz irugaŕenak.

9. A. Soloetak bere lantxo onen 33-garen oŕialdean *a cinco podemos reducir*, dio, los elementos *especificantes de las tercera personas en uso hoy en euzkera* y son *d, z, j, l, tz*; ejemplos: *etortzen da, etortzen zait, etortzen jat, etorriko litzake, ikusten deutzzazu. Tz au, ezer bada, ezta elemento pasivo, recipiente baizik*. Iratez *ts* da, askok *tz* bezela esanáren. (*Ts, tz* bezela askok ebaki oi dutelako, *tz* idatzi bear badu A. Soloetak eluke *zagoz ta zoaz ta zara* órela idatzi bear, onela baiziz: *sagos, soas, sara*.) Imperativo-*ko b* (*betor, xin bedi, eror bitez*) eztu aintzat artu nai gure urgazle onek (1). *J* ori ezta ta bada onelako adizkia. Adiskide-arteko irabiamenean (conjugacionean) toki batzuetan *i* ta *d* alkaŕen áldamenean bizi izan oi dira: *diakarkek* (*dakarke-ren adiskide-artekoa*), *diabilk* *dabil-en ordez... e-a*. Beste toki askotan *d* oŕek *i* baŕuan artzen du, itsaspidez (*por incorporación*): *đakaŕek, đabilk, ekaŕi đok*.

(1) Bonaparteri dafaikiolarik *bai* dala dio *b* ofen itufia. ¿Eta nola da *ezpedi etorri* esan al izatea? *Ba* condicional denean, *ezpaleki, ezpalitz, ezpada* esan oi ditugu; *baiña ba* afirmativo denean, *ez*. Campion bide onean yafí zan, bere maisutu utzi ta será algún pronombre perdido esan zuenean. *Tratado de afios vascos* en ikusi diteke *b* au *pronombre* bezela.

Berdin gertatzen zaie *I* ta *n*-ri ere oñelako gertaldietan (kasoenan). *Nator* ta *letorke* adiskide-artean batzuk *naiatok* ta *laietorket* esan oi dugu, beste batzuk (A. Soloetaren yaioterran ere bai) *ñatok*, *Tetorkek* era-biltzen dituzte. Len aipaturiko *d* ori batzuk *x* bezela, beste batzuk *dx* ta *j-reñ* otsez ebaki oi dituzte: *ekari xok*, *dxok* eta *jok*. Beraz *j* adizkitzat artu bear bada, *ñ* ta *I* ta *x* ta *dx* ere aintzat artu bear izango ditugu.

10. Adizki egileak (agentes) zeintzuk diran *gnork* eztaki?

1. *d* edo *t*: *darabildaz*, *darabilzkit*.
2. *k*: *darabilk*.
3. *n*: *darabiln*, *darabilna*.
4. *utsa da*: *darabil*. Gure egunetako izkelariak esaten duten «desinencia cero» du.
5. *gu*: *darabilgu*.
6. *zu*: *darabilzu*.
7. *zue*, *zute*: *darabilzue*, *darabilzute*.
8. *e*, *te*: *darabile*, *darabilte*.

A. Soloeta-Dimak *pasivos* ta *agentes* oriezaz nas-mas eginik, *d*, *k* ta *n* egile-artetik atera ta auñeadlera ekañi ditu, *kizun* ta *egile* izatera: *etortzen daza* yo vengo ta *ikusten daza* yo veo; *etortzen kaza* tú, hombre, vienes ta *ikusten kaza* tú, hombre, lo ves; *etortzen naza* tú, mujer, vienes ta *ikusten naza* tú, mujer, lo ves. *L* adizkizuna ere bere tokitik atera ta *indicativo* ra ekañi du, adizkizun ta egiletzat: *etortzen laza* él viene ta *ikusten laza* él ve. Egile *plural* guztiak iretsita, beren ordez ta auñe-aldean kizunen tokian *g*, *z* ta len aipaturiko *tz* yañi ditu: *ikusten gaza* nosotros vemos, *ikusten zaza* vosotros veis, *ikusten tzaza* ellos ven.

11. Adizki arkaiaiak (elementos recipientes del verbo bitzuk dira: batzuk aditz euskoi (intransitivo)-

-arenak; besteak aditz biralkoiari (transitivoari) dagozkionak. Lenengoak, imperativo ta subjuntivoan beintzat, euskalki guzientzat dira batzuk: *begokit, begokik, begokin, begokio, begokigu, begokizu, begokizue* edo *begokizute* ta *begokie* edo *begokiote*. Beste arkaiaiak transitivoarenak A. Soloetak amarrengandik ikasi zuen izketan *ki-ren* ordez *tsi* daukate ta gainera *t, k, n, o, gu, zu, zue* ta *e*: *egin baleust, baleusk, baleusn (baleun), baleutso, baleusku, baleutsu, baleutsue* ta *baleutse*. Euskalari aldatzaile onek adizki arkai bitzuok suntsitu dizkigu ta beron ordez bere *za* muñari *t, k, n, l, gu, zu* ta *tz* gaineratu dizkio. Onela: *ikusten dazak* yo te lo veo, hombre; *ikusten dazan* yo te lo veo, mujer; *ikusten dazal* yo se lo veo, *ikusten dazazu* yo os lo veo, *ikusten dazatz* yo se los veo.

12. Mutilko nintzan egun zuri aietan gizon bat ezagutu nuen nere yaiotefian, zerbaitez ariturik zegoanean auxe baino besterik esaten etzuena */gizonak, gizonak, gizonak, gizonak!* eta, bere aŕimena andia zenean, asnasa beria artu ta atsa galduarte beriz ta beriz */gizonak, gizonak, gizonak, gizonak!* A. Soloetaren egikizun au ulertu al izan balu, zazpi atsaldi artuko edozituan, bere itz maite ori ogei ta zortzi bider gutxienez esateko. Ez, izkerak eztira, emakumen apaingariak bezela, zartu ta maiztu ditezenean, azpikoz gainera ta gainezko azpira yari ta erabiltzeakoak.

13. IRUGAÑEN GAIA. Gure urgazle urez andikoak (ultramarino) *sustantivos nominales* izendatzen ditu, nik nere Katharinitis artan, EUSKAL-IZKINDEAN, Balmes yáraikiz, *nombres locutivos* -en izenaz erakutsi nituenak, edozein liburutan *pronombres personales* deritzaien *ni, i, a* (hura), *gu, zu, zuek* eta *aiek*: *sustantivos nominales*. Eta gai onetzaz luze ta zee ekin-

ondoan, 58-gaeren ofialdean, itz auek idatzi ditu: *Hemos probado, al menos intentado, que los sustantivos nominales en euzkera son: deu yo, keu tú, varón; neu tú, mujer; leu él, geu nosotros, zeu vosotros, tzeu ellos.* Soloetak, beste norbaitek bezela, *eu* ori eztu zuzen ulertu. A siete se reducen—dio 17 gaeren ofialdean—*los sustantivos nominales en euzkera*. Son los siguientes: NEU, EU masculino, EU feminino, A, GEU, ZEU, AEK. Las formas transcriptas pertenecen al dialecto bizkaino; las correspondientes a los demás dialectos son *ni, i o hi, ura o hora, gu, zu, aiek o hek*. Bizkaieraz ere erabiltzen ditugu *ni, i, gu, ta zu. Neu, eu, geu, ta zeu* beste euskalki batzuetan ere noizbeinka ta gertaldi (caso) batzuetan entzuten dira: *Neure* da geien irakurri oi duguna. Gainera *ni ta neu, i ta eu, gu ta geu, zu ta zeu* eztira zentzukideak (sinónimos). *Neu, eu, geu ta zeu* intensivos dira: *yo mismo, tú mismo... ta abar. Eu* onen yatorria beste nonbait *Tratado de affios vascos* -en agertu dudan aíen, emen ere zerbait esan dezagun. Euskalki askotan *vocal* arteko r yan egin oi dugu: Lapurdin AIKO da, Bizkaian guk be bai, Gipuzkoan bai nik ee: *aiko, be ta ee oriek ariko, bere ta ere* dira. Er artizki (infijo) — aren bidez eratzen dira pronombres intensivos auek: *nerau, erori, bera, gerok, zerori* ta *zerok eta berak*. Bizkaian, len aipaturiko laburpen ofén bidez, *nerau* esan-beaŕean, *neu* esan oi dugu eta gero *neu* onen antzera beŕiraztu ditugu beronen lagun zar oriek; onela: *eu, geu ta zeu*. Uts andia da, beraz, *eu* ori aintzat eta ointzat artuz *sustantivos nominales* beŕi oriek tankeratzea. ¿Zer dira, ordea, zuztraiz *deu yo, keu tú, varón, neu tú* mujer, *leu él ta tzeu* ellos? Eriaren esakeratxo bat aotan artzea bide bazait, zilegi badut, neste-boŕaste

bat dala esango nuke. *D*ori egiaz erderazko *yo* bezela da aditzean, bainan atzetik, auétik *ez*: *agente* da. Paciente denean *n* esan oi da Euskaleñi guzian, euskalki orotan, nonnai ta noiznai: *nago, nator, noa, naiz, nakus, nakar...* *K*ta *n* oriek ere erderazko *tú* dira aditzean, gizakume ta emakumea, bainan egile bezela atzizkitzat, sufijo diralarik darabilzkigunean ta darabilzkigunetan, beti. Euskerak eztu bigařen adizkizun (paciente) ori ařa ala emeă den adieraztén: *ATOR tú, varón, vienes eta tú vienes, mujer.* ¡Leu ta *tzeu* él ta ellos dirala! Nai duenak irakur beza beriz lentxeago *I* ta *tz* onezaz azaldutakoa.

14. LAUGAŘEN GAIA. Izenorde erakusleak (pronombres demostrativos) ere aldatu nai lituzke gure lagunak. *Los demostrativos hoy en uso se reducen a los siguientes*, dio 158-gařen ofialdean: *au, aur,* este; *hori, ori, ese; a, ura, hora, bera,* aquel. Lenengo bien artean *gau, kau* ta *haur* ere sartu bear zituen; bigařenen artean *gori* ta *kori* ere bai; bainan *jots!* isiltasun oriek eraman ditezke. Irugarenen artean *a ura* ta *hora-ren* zentzukidezat, berdintzat, *bera* ezařtzea: *au ez, onetsezina da, artu ezin dezakeguna.* *Bera a-ren intensivo dugu aquel mismo edo él.* Beste biak ere badituzte intensivo auek: *au-ren intensivo berau da, orj-rena berori.*

Geroxeago (1) A. Soloetak auxe dio: *En bazkuentze* (2) *son bien conocidos los adverbios de lugar EMEN aquí, OR ahí, AN allí. Prefijando esos adverbios al elemento genérico AU, resultarían demostrativos tan claramente especificados, que el menos*

(1) 160-gařen ofialdean.

(2) A. Soloeta-Dimak bere lan onen aufealdean *bascuence* ta *euzkera* dakerzki gure mintzoaren izentzat. Azkenaldean *euzkera* ta maixko *baskuen-tze* ta *bazcuentze*.

versado en euzkera los distinguiría al instante de otros términos gramaticales: emau este, órâu ese, anaau aquel. Itz bitxi auen pluraltzat EMAUEK, ÓRAUEK, ANAUEK erakutsika gero oar auxe dakar bere lanaren azkenaldean. A mi juicio, EMAUE, ÓRAUE, ANAUE, desprovistos del sufijo k, significan estos, esos, aquellos. No creemos nosotros que la k sea un elemento pluralizador ni en demostrativos ni en sustantivos, no obstante de saber que se le da ese destino.

Jesusen pizkundea (resurrección) Apostolu batek ikusi gabe etzuela sinetsiko (sinistuko) esan zuen: *nisi videro, non credam.* A. Soloeta-ren azken-epai oriek ikusita, askok esan dezakete: *etiam videndo non possum credere* - ikusita ere ezin sinetsi dugu gizon batek inoren laguntasun gabe oñelako zer gaitzak asmatu lezazkeala. 1.^º EMAUE, ÓRAUE, ANAUE estos, esos, aquellos adierazten dutela. ¡Ori baino ez! Zuk nai baduzu, baita Sem, Cam eta Japhet ere. 2.^{en} eztuela sinesten k askotasun-gaia (*elemento pluralizador*) izatea. ¿Entzun oteditu iñork, iñoiiz, iñon k gabe esakeratxo auek euskeraz: *estos hombres, esas pieles, aquellas cabras?* A. Soloetak berak entzun ta naiz irakurri baldin baditu, esan bezaitu jotoit! nori entzun dizkion, non ikusi dituen.

Izenetan k onek askotasuna iragartzen oteduen ala eztuen *Tratado de afíos vascos* -en, *zortzigarren ageñaldian* (Kapituluan) azaldua izango da. An ikus dezake irakurleak.

15. Euskalari berizale txukuneridun-artean urutiren yoan zaiguna A. Soloeta dela uste dut. Oñetarako dituen kemena ta zaletasuna audiak izanañen, etzen noski bide legunetik ainbeste irtengo, aurétiokoak izan ezpalitu: nerau bat, nerekin bateratsu besteren bat eta ařen ondoren eli osoa, berizale-mordo andi

ugaria. Eun berikeri aipatu gabe utzita, batek oraintsu Euskaltzaindi onen egun auetantxe yakin-arazi dizki-gun bat edo bestetxo azalduko ditut. *Seme* eztela «hijo» dio, *sein eme* dela, «hija» dela; *senar* eztela «marido» *sein-ar* edo «hijo, infante varón» dela, *alaba* eztela «hija», «amo poderoso» dela, goberna-dore naiz Alkate bezela; *emazte* eztela «esposa»... eta onelaxe beste txukunerri iñigari batzuk azaldu diz-kigu (1).

Askok uste izan lezakete lengo gizaldiak gure au baino obeak izan dirala euskerarentzat. Lana, lan askozaz gutxiago egin zuten gure asabak. Gainera-koan orain euskerak beronen eraietañizuria (peste) badu, orduan ere izuria zuen: orain txukuneria (Katharinitis), orduan... burua austen ari izanta ere, etzait otu, etzait burmuñ-artean erne euskerazko itz ofeta-rako egoki den bat; erderaz esan bearko: *panvasquismo*. (*¿Oroeuskera* ala *oroeuskaleri* izendatu otenditeke gure asaben eri au?).

Laŕamendi ta Astarloa orduko euskalari entzu-tetsuenak nonnai zekusten euskera. Astarloak Paradi-suan ere ikusi zuen; eta berak zekusena guri ikusaraz-teko banan banan zeinbatu zituen euskerak bere ustez dituen letrak: 28; interjecciones, onenbeste; o  nbeste irabiamen (conjugaciones)... eta abar; gero *silogismo* bat egin zuen, ia zortzireun o ialde dauzkan silogismo: *discursos filos ficos sobre la lengua primitiva*. «El idioma primitivo debi  tener veintiocho letras (berak lendik euskerari zeinbatu zizkionak), tres interjeccio-nes monogramas y diez poligramas, 122 conjugacio-nes corteses... etc.» au zan bere *proposici n mayor* esate_n zaiona: *Proposici n menor* onelan yari zuen:

(1) Ikusi EUSKERA Irugafen urtea, 26-gafen ofialdea.

«es así que el vascuence tiene veintiocho letras, tres interjecciones monogramas y diez poligramas, 122 conjugaciones corteses... etc., luego el vascuence es la lengua primitiva».

Larramendiren iztegia zabalduz nonnai ikusi dezazke *panvasquismo* orien atzak, markak: ESTANDARTE ta NAIPE artuko ditugu erakusmentzat. ESTANDARTE es voz bascongada, dio Larramendik: o de ESTUANDA ARTE, que significa está en aprieto hasta tanto o entre tanto y así lo están los enemigos mientras no ven abatido el estandarte contrario; o de EZTANDA ARTE, que significa hasta reventar y con tal tesón le han de seguir los soldados y mantener el alferez.

NAIPE es voz bascongada, NAYPEA, aunque no la usamos, de NAI querer y voluntad y PE, PEA, debajo, inferior; y a los naipes les cuadra el nombre porque debajo o en la parte inferior están las figuras o palos y se reparten quedándose ocultos y debajo; y porque esto excita y se junta con el deseo y querer vencer y ganar, bien se les dió el nombre de naipes. CARTA y en adelante NAYPEA. Azken-itz auek «y en adelante naipea» lenik irakurí nituenean, pañirí gozoa eginez, neronen ustetxo bat gogoratu zitzaidan.

EUSKAL-IZKINDEA egin nuenean, Larramendik bezela «en adelante onelaxe izango da Bizkaiko euskalkia» enituen itz auek liburu artan ezáfi; baina neronen buruari esaten nion: ire ikasleak ire asmo auek ikasi ta zabaltzen asitakoan, urte batzuk bañu gaurko euskera sastua, Bizkaian beintzat, garbi-garbi, txukun txukun ta yaio zenean bezain txau ta txuri yañiko zaigu.

Aldatzaile berizale guziak au uste izan oi dute, elirake bestelan aldatzen asiko.

16. Eriak onelako aldaketak nola artzen dituen,

obeki esateko, nola eztituen artzen erakusteko, buru-
ratu ditzagun al izate andiko gizon batzuk onelako
asmoetan izan dituen poñot (fracaso) batzuk.

Tiberius efomañen agintariak izketan ari zen batez
uts bategin zuelarik, bere mendeko Capito bere alde
yañi zen. Beste batek, Marcellus-ek, Capito-ren la-
bankeri arzaz sapusturik; *Capito gezurti bat da*, esan
zuen; bada zuk, Cesar, len efomar eztiran gizonak
éromartzeko eskubidea izanañen, latinezkoak eztiran
itzak ezin latinezkotu zenezazke.

Beste gertalditxo bat, Constanza-ko Eliz-batzar
ots andikoan yazo zan. *Videte Patres*, esan zuen Se-
gismundo agintariak, *Videte Patres, ut eradiceris*
SCHISMAM hussitarum.

—*Serenissime Rex*, gaineratu zion fraile batek,
schisma est generis neutrīus. — ¿Nola dakizu ori?
galde egin zion eŕegek.—Alexander Gallus-ek dio.—
¿Nor da Alexander Gallus?—Bakartar (monje) bat
izan zen.—Ni, aldiz, Éromako agintaria naiz; eta,
uste dudanez, Eŕege baten itzak bakartar batenak
ainbat balio du.

Alarik ere *schisma* itz ori, lenago zen bezela, *gene-
ris neutrīus* da gerotzik ere. Beste bi gertakizun labur
edatsi (esan) ditezke, arirakoak, egokiak eta eŕege
-ezpañetatikoak auek ere. Alemaniako agintari andi
Friedrich (Federico) bigañenak bere eŕi-izkera etzuen
maite. Bein bere ingurukoai esan zien: Aleman-izkerak
beronen aditz guzien azkenkitzat *n* du: *denken, sagen,*
wirken; eta itsusi dugu ori. Latinak duenez *e* bear
luke biguñgaritzat: *deneke, sagene, wirkene*. Agin-
tariaren ustea ta gogoa ta agindua gora-bera lenagoko
denken, sagen, wirken, orain ere ala dira.

Gu aur yaioberi edo beintzat mutilko kaltza-motz
ginalarik, Eugenia Frantsesen *emperatriz* zenak zau-

ta (yan-edan) andi baten bitartean babeñunak adierazi nairik, *les haricots*, h-ren ats utsezko otsa aintzat artu gabe *ledzaricó* esan omenzuen. Bere inguruko gerí-biguñak labankeriz, uste dedanez, gainerako egunetan berak bezelaxe *ledzaricó* izendatzen omenzi-tuzten gure babeñun-indirartxoak. Bainan ango izkeraz egoki mintzo oi direnak, ordurarte bezela, *le'haricó* entzun eragiten dute.

Lau eŕege aiek ezin zezaketena  guk, gerantxo auek, egin otedezakegu? A. Soloetak bere aldakuntze ta txukunerri orietan egi utsa erein balu ere, eŕi baten izkera ezta alor bateko arto-gari-olo-sekaleak bezela. aldatzen.

17. Gizonak noizean beinka fará-puxkat ere egin bear du ta nere yaioteríko bi gertakizuntxo edatsiko ditut. Lenengoaren *protagonista* nerau nintzan. Nere *katharinitis* hura labetik atera beŕi nuelarik nere eŕiko alkateak ots egin zidan: San Antolinez itzalditxo bat egitera yoan nedila. Nik nere aldaketa *etori dai* ta *esan daugu* ta beste berikeritxoak eŕurik etzuen San Antolini zinzilizka yaŕita, tipi-tapa tipi-tapa Bilbotik itsasaldera yoan nintzan. Nere itzaldi bitxia egin-ondoan bazkaltzera ninoalarik, auzoko emakume batit itz auek edo beron antz-antzekoak entzun nizkion, adiskide batekin txir-ixor izmizka ari zelarik:

Potxua  entzun dozu gaurko sermoia? ; Alakorik! ; Nok esan ori eŕiko semia danik!

Ogei ta sei bat urte geroago euskalari sutsu, txukuneriz burua aspaldion yoa duen elizgizon argi ta iztun etoritsu bat agertu zan ango bertako Elizan, itzaldi batzuk aste guren batez (aste santu batean) egiteko asmoz. Ostiralez egin zuen itzaldian Jesukristo gure Jauna bere amarekin ta ikasle Yoanerekin ika izketan agertu zuen.

Emakumia: or daukan ire semia. Semia: emen daukak ire Ama. Itz auek entzun zituen-belařiak aurétiak minduak ziran ainbeste *Josu ta Miren ta Jon deuna ta Uzkurtz ta Donoki ta txadona ta lagi zaŕa eta euzkera ta irugaŕen egunan ta beste amaika itz ta esakera berí ta naspilduz.* Elizatik irten ziranean, beste eraskin (comentario) latz askoren artean, auxe esan zuen aŕantzale batek: *Txo ȝsermolari oŕek baru eiŕen dabela uste dok ik? Edanda dxatok ori, edanda: ez esan ezetzik.*

Itz zakar auek aipatzea barka bezait arako iztun ark. Iketa gure egun auetan ere beronena du euskerak, etzaigu galdu izkuntze eder ori; bainan eŕiak eztu bein ere erabiltzen adiskide-artean izan ezik; Elizan entzuten duenean, beti izan oi da deabruari naiz pekatuari aurpegi artzeko. Oŕegatik nabarmen ta iguingarí deritzaio eŕiak Jesusek amarekin oŕela itz egiteari. ȝZer ezoteluke esango, *onau ta oŕau ta anau ta* beste bereak eztituen itz yostagarí oriek belařiratuko bagenizkio?

18. Yaunari eskeŕak ez nere *Euskal-izkindea* ez A. Soloetaren *Ensayo de la unificación* eztira eŕiaren eŕaietara elduko. Guk gure asmo oŕezaz liburu bana egin bearean, *Euzkadi ta Jel ta Euzko deia ta Jaungoiko-zale* bezelako aldiroko paperetan gure amets oriek gutxika ta poliki erein bagenjtu, *euzkerak eta txadonek eta Miren Koldobikek eta zago ta zator ta zabil-ek eta beste eun beríkerik egindako kaltea egingo zuten bai gure lan oriek ere.*

Nik bezela beste edozein euskaldunek oartu izango du euskaldun geienen artean gertatzen dan zertxo au. Erderaz aisa badakite ta euskera berdintsudunak ezpadira, berealaxe yotzen dute erderara, alkar ulertzea eŕazago baitute. ȝZer ezotelitzake gertatuko *emau, deu kaza, tzek tzazal* ta beste len azaldutako asmo

bitxi oriek or-emenka erneak eta ez garatu bai garatu balira? Iguinez ta ulerpidea ta éraztasuna nairik edozeinek yoko luke erderara. Yaungoikoak yagon deza-la gure izkera zar maitea aipaturiko bi liburu oien eta aipatu gabe utzitako batzuengandik: bestelan eun, bérreun urte baino lenago liburu oriek berok euskera-ren il-yantziak (la mortaja) izango lirake.

19. Len esan dut A. Soloeta arlo onetan beste batzuen ondoren dabilela. Bere liburutxo onetan irakurtzen ditugan *nagaron*, *nilan*, *dapoz*, *dapozdan*, *genařen*, *zarten*... eta beste asko besteren batengan-dik ikasi ditu. Eta orain galdetxo bat euskaltzainkide maiteoi. ¿Baotedakizute itz orien zentzuna zein den? Nik beintzat erderazko itza bakoitzaren ondoan irakuri ezpanu, enuen igarí al izango. *Nagaron* subjuntivo de *igaro* omenda; *nilan* yo moría, *dapoz* se alegra edo beste onelako zeren bat. Gure urgazle Soloetak izenorde bitzuk artu ditu aldakizuntzat: gizakizkoak (personales) eta erakusleak (demostrativos). Beste norbaitek kopurugaiaik (numerales) ar ditzazke oretarako. *Eka* da guzien sustraia ta oina. Sanskrit zařák badu *eka* ori, guk ere gure *amaka*, *ameka*, *amaeka*, *amaikan* agiri-agirian dakusku; eta A. Soloeta-Dimak bere *za-tik daza* ta *kaza* ta *naza* ta *laza* bezela, eta bere *eu-tik deu* ta *keu* ta *neu* ta *leu* ta *tzeu*-ren antzera, beste berizale orek onela egin lezake bere kopurudia: *eka* uno, *beka* dos, *zeka* tres, *deka* cuatro, *geka* cinco, *yeka* seis, *keka* siete, *leka* ocho, *meka* nueve... Bidenabar greziaén *kepta* gure *keka*-ren aldakuntzea oteden esan lezake, aien *deka* eztela «diez», berak uste dutenez; gure *deka* leneratua edo restaurado bezela «cuatro» dela; eta gero batean «el euzkera hoy en uso» bestean el «bazkuentze primitivo» aipatuz, aufera bildurík gabę.

20 Onelako lan bat burutik burura eramateko
guzer bear da? Gogaldi ona (umore ona) aurénik, astia
ere bai, gainera odeitan bizi ta azkenez A. Soloetak
duen buru argi ta asmutsua. Bizkaieraz esan oi dugunez,
dabenari dabena: '*suum cuique*'. Buenos Aires-ko
euskal irakasleak gutuntxo onetan guk ederetsi ta
aintzat artu ezin ditugun irakaspene asko agertuareñ,
lan onak izan ditzazkean sustrai mamintsu ekarkoá
ere badarakusku. Asko irakuí du, euskerazko ta eus-
kereazko lan, beredin izkeratan egindako lanak eza-
gunak zaizkio. ¡Ots!

Nik ere nere txukuneria utzi nuen ta bera ere, eri
ori utzita, sendatu bedi, ta ar beza beriz ta beriz
eskuetan bere egatsa (idaztortza, luma) eta nik nero-
nen aldetik bere lan beri sendo sakon oriek eta beren
egilea goratzeko itzaurétxo bat edo beste atseginez
egingo nuke.

Bilbon, 23-12-1922.

INFORME

acerca de un Diccionario de la conjugación euskerica en los escritos de los siglos XVI y XVII

Un diccionario de flexiones verbales ha de ser *completo* y *metódico*. El hacerlo *completo*, circunscribiéndonos a nuestra escasa producción literaria en los siglos XVI y XVII, no sólo es posible, sino sumamente hacedero. Deben tenerse presentes, sin embargo, ciertos puntos:

1.^o Una misma forma verbal; v. gr.: *dagigun*, puede presentarse con acepciones diversas.

Así; *dagigun au zaitxo da* = *lo que hacemos...* es difícillo.

au dagigun guziok, ondo gabiltza... = *los que lo hacemos...*

dagiguna ondo dagigun = *lo que hacemos hagámoslo bien.*

dagiguna ondo dagigun, oarí bedi... = *para hacer bien nosotros lo que hacemos, téngase presente...;*

au dagigun nai dezuten ezker... = *ya que queréis que lo hagamos.*

¿zer dagigun yakin nai al dezu? = *quieres saber qué hacemos?*

Todas estas acepciones deben figurar en el diccionario, y de cada una debe sacarse papeleta aparte.

2.^o Por el contrario, en cualquiera de estas acepciones, pueden aparecer variantes fonéticas; v. gr.: *dagigun* y *daigun*. Todas deben recogerse. No así las variantes ortográficas. Pues la ortografía con que deben presentarse en nuestro diccionario debe ser la

oficial; aunque en los ejemplos sacados de escritos hay que mantener la del original de donde se toman.

3.^º Cuando una forma verbal oficial de auxiliar, la significación *combinada* del complejo armado por esa forma y el nombre verbal correspondiente, puede no convenir con la suma de los significados propios de cada componente; v. gr.: en *eman zidan*, el significado de *eman* es *dado*; el de *zidan* es *él me lo había*. La suma de estos significados es *él me lo había dado*. Pero la significación combinada es *él me lo dió*, como se ve, diversa ideológicamente de *él me lo había dado*.

Es preciso, por consiguiente, consignar las significaciones combinadas.

4.^º Deben figurar también en el diccionario los nombres verbales, tanto cuando aparecen aislados, v. gr.: *yo*, *ekin*, *yarei*, *laga*, *itxon*, etc., haciendo de imperativos: *yayotzen*, *eskatzen*, etc., en función gerundial, v. gr.: *ikusi al dezu Yesukristo yayotzen edo iltzen?*, como cuando vienen acompañados de auxiliar, v. gr.: *ikus*, *ikusi*; *aí*, *aítu*, *aí*; *mintzo*, *mintza*, *mintzatu*; *izanen*, *izango*; *emain*, *emanen*, *emango*, etcétera, seguidos de *dezaket*, *dio*, *naiz*, etc., etc.

5.^º Las formas regidas y declinadas no deben faltar en el diccionario de la conjugación euskérica; porque, en tan escasa literatura, muchas formas verbales sólo de esta manera han tenido ocasión de aparecer; y porque, aun sin eso, la variedad de afijos y de fonemas y de matices semánticos de que estas formas se revisten, constituye una parcela muy atendible en el campo de nuestra conjugación.

6.^º Ni solo las formas verbales empleadas por nuestros escritores, sino también las recogidas y enseñadas por ellos, actuando como tratadistas de la

conjugación euskérica; v. gr.: las que expone Etxeberí en su *Euscarazko hatsapenac...*, deben tener cabida en nuestro diccionario.

7.º Finalmente, creo que no debemos desatender otro recurso indirecto; y es el que nos proporcionan los euskerismos relativos a la conjugación, en que incurren los euskaldunes que chapurrean el erdera. Nada tal vez, o poquísimo será lo que respecta a los siglos XVI y XVII podremos sacar de aquí; pero continuando hasta nuestros tiempos, sí que podremos beneficiar este filón.

En una palabra, ni el más insignificante pormenor de nuestra conjugación debe dejar de recogerse. El inventario así completo será, con el que le siga, después de registrados los escritos euskéricos y erdal-euskéricos posteriores, la historia posible y el catastro positivo de la conjugación euskérica, tal cual aparece en nuestra literatura escrita o cantada. Pero aun así, no será más que uno de los afluentes del gran depósito de todas sus formas, que necesitamos con toda urgencia fabricar y llenar, para estar en disposición de hacer un estudio definitivo de nuestra conjugación. Que ese es el fin propio de la obra que hemos emprendido: conseguir tener reunida toda la documentación y a la mano todo el material de estudio referente a la conjugación euskérica. De suerte que, en orden a los hechos lingüísticos de nuestra conjugación, pueda el que posea nuestro diccionario cerciorarse de todo lo que la realidad da de sí, y abarcarlo con mucha más seguridad y facilidad de utilización mayor que cuanta hubieran podido adquirir tras largos años de observación y experiencia obstinadas los mejor dota-dos por naturaleza y más favorecidos por las condiciones de su vida en pleno ambiente euskérico.

El otro afluente, el principal, el más interesante y el de más laboriosa captación, es el habla viviente. Cuantas esperanzas tengo de ver bien y pronto realizada nuestra obra en lo tocante a la conjugación escrita, tantos temores me asaltan de no lograr esa dicha respecto a la conjugación, que mana, como de sus fuentes perennes, y más o menos puras o contaminadas, de los labios euskaldunes. Pero limitado contra lo que yo creí entender en la última sesión, el encargo de esta ponencia al campo de lo escrito en los siglos XVI y XVII, me reservaré el fundamento de estos temores y el planteamiento de la cuestión total y vitalísima de la elaboración del Diccionario del Euskera, no ya de su conjugación solamente; empresa primordial y la de urgencia más inaplazable que tiene que abordar de lleno nuestra Academia en la esfera investigadora, y de rechazo en la tutelar de nuestra lengua; y que bien llevada, nos convertirá de tertulia de euskalaris en corazón impulsor y cuartel general de un pueblo, a quien hay que hacer que quiera con exacerbamiento, y que de hecho empieza ya a querer, reponerse y reconquistar su lengua.

Ciñéndome, pues, al diccionario de la conjugación euskérica, sobre la primera cualidad que debe tener, a saber, la de ser *completo*, no tengo más que añadir, sino que se tenga en cuenta la deficiente estampación de nuestros libros, para que no se deslicen en nuestro diccionario, como formas verbales empleadas por sus autores, las que no son sino erratas de sus impresores. En pasando de los siglos XVI y XVII, y si dentro de ellos hay reediciones de algún escrito, de esas reediciones también habrá que recoger las variantes sustituidas a las formas originales; no ciertamente como propias del autor, pues no lo son, sino aparte,

haciendo constar su procedencia; porque serán formas testigos del tiempo de la reedición y del uso preferido, por lo menos a juicio del editor, por el público entre quien pensaba colocarla.

Hasta aquí la parte fácil de nuestra obra. Lo arduo viene después; sistematizar, ordenar metódicamente todos esos materiales, una vez comprobados y depurados.

Ordenar las palabras en un diccionario es catalogarlas con arreglo a una pauta determinada que permita encontrar fácilmente la información que allá va a buscar el que las maneja. A un diccionario de los corrientes se acude cuando la conversación o la lectura nos hacen tropezar con una palabra desconocida. Enterados, la dejamos hasta que un nuevo tropiezo con lo desconocido nos lleva a consultarla otra vez. Para estas consultas incoherentes, en las que el dato es una palabra y la incógnita la idea significada, la catalogación de las palabras por orden alfabético es insustituible. Como nuestro diccionario ha de recibir esa clase de consultas, no puede prescindir de catalogar alfabéticamente las formas verbales.

Con el mismo carácter de ocasionalidad incoherente se nos presenta, al hablar y al escribir, el problema inverso: ¿cómo expresar esta idea verbal? donde el dato es la idea y su incógnita la expresión; en nuestro caso, la forma verbal correspondiente.

Para estas consultas bien se ve que la catalogación alfabética de las formas verbales euskéricas es perfectamente inútil. Lo que debe estar catalogado es el ideario conjugativo. ¿Cómo conseguirlo? Dos procedimientos: 1.º por banda o indirecto; es decir, apelando al erdera, y catalogando alfabéticamente las traducciones erdéricas de todas las formas verbales

euskéricas; 2.º directamente, sin salir del euskera; catalogando ideológicamente, o lo que es lo mismo, agrupando según sus categorías ideológicas, todas las formas verbales euskéricas recogidas.

Aun apelando al método indirecto, no podemos prescindir de este ideológico. Porque le necesitamos para otro género de consultas de mucha mayor trascendencia que las recordadas, en las cuales no se trata más que de salir de un mal paso. La catalogación ideológica despliega en armónico conjunto de fácil repaso toda la variedad de recursos que nuestra conjugación pone en juego, para adosar a la significación fundamental de cada núcleo verbal las consignificaciones de tiempo, modo, sujeto, término directo e indirecto, atención, habida o no, a un interlocutor de parte del que habla; en una palabra, cuanto contenido semántico puede acompañar a la idea peculiar de cada verbo en sus diversas formas conjugadas. Nos pone ante los ojos los afijos positivos o negativos, que cada dialecto o variedad subdialectal (en nuestro caso, cada escritor) emplea preferente o tal vez exclusivamente para cada una de estas consignificaciones, y el puesto que les hace ocupar en la forma completa; descubriendonos así los materiales morfológicos y el tipo estructural de sus formas. Descúbrenos, además, que esos materiales morfológicos y ese tipo estructural, aun dentro de la variedad subdialectal más definida, y tratándose de expresar exactamente los mismos matices consignificativos, no son constantes para los diversos núcleos verbales, permitiéndonos apreciar qué núcleos de éstos adoptan unos u otros afijos, y un tipo estructural u otro.

Y reunidas así en subagrupaciones ordenadas todas las variedades que hayamos podido recoger bajo

tuna misma etiqueta ideológica, echaremos también de ver que no toda la diversidad de formas ideológicamente idénticas estriba en el elemento afijal (afijos empleados y modo de colocarlos), ni en las modificaciones fonéticas sobreañadidas, y que velan más o menos la identidad que acaso haya en el bagaje afijal; sino que puede radicar en el núcleo mismo verbal; v. g.:

<i>zen</i>	= <i>zedin</i>
<i>biu</i>	= <i>beza</i>
<i>auk</i>	= <i>ezak</i>
<i>biz</i>	= <i>bedi</i> = <i>bitez</i>
<i>garen</i>	= <i>gaizezen</i>
<i>zuan</i>	= <i>zezan</i>
<i>deza</i>	= <i>du</i>
<i>gentezen</i>	= <i>giñen</i>
<i>bire</i>	= <i>bitez</i>
<i>zitezen</i>	= <i>ziren</i> , etc., etc.

Si a continuación de cada forma absoluta se coloca toda su familia de declinadas y regidas, no habrá ninguna forma que no caiga dentro del campo visual, perfectamente enfocada, y expuesta por añadidura a la luz comparada de todas las variedades dialectuales.

Nuestro diccionario no será una gramática de la conjugación euskérica, pero valdrá por todas las gramáticas, que tendrán que venir a él para rehacerse y fundar en sus datos sus aserciones y sus explicaciones. Y esos datos los encontrarán allí ya reunidos, más que como en problemas propuestos, en problemas bien planteados.

Hé aquí cómo concibo yo esta catalogación ideológica:

1.^a parte.—Conjugación simple

Sección A — Conjugación simple transitiva.

1.^o Formas impersonales.

2.^o » personales.

a) puras

b) mixtas.

Las puras se catalogarán atendiendo al *tiempo* verbal; de manera que resulten tantos grupos como tiempos tiene la conjugación simple. A su vez, las formas puras de cada tiempo se catalogarán atendiendo al *modo*. Y en cada subagrupación de éstas, irán primero las formas que prescinden de todo tratamiento

social, y después las que lo expresan {cortés
{fam. {masculino
{femenino

precediendo siempre las formas de término singular a las de término plural, y por orden de sujeto agente.

En las *mixtas*, la primera ramificación clasificadora se hará atendiendo al término indirecto. De donde resultarán 8 ramas:

niri	guri
iri (gizonari)	zuri
iri (emakumeari)	zuei
ari	ayei.

Para la clasificación de las formas mixtas correspondientes a cada una de estas ramas, se seguirá el mismo orden que acaba de exponerse para las puras.

Y como son tan raras las formas mixtas con término directo que no sea de 3.^a persona, las que se encuentren de esa clase se pondrán después de las

agrupadas en esas 8 ramas, en que se catalogaron las formas de término indirecto de 3.^a persona.

Sección B — Conjugación simple intransitiva.

1.^º Formas impersonales.

2.^º » personales.

a) puras

b) mixtas.

En la catalogación de cada grupo de éstos, todo se hará como en la de las transitivas; con la única diferencia de que para las intransitivas no cabe la división, necesaria en las transitivas, de formas con término directo { singular
 } plural.

Antes de pasar adelante, veamos, por vía de ejemplo, cuáles han de ser las etiquetas ideológicas de las formas simples puras de la conjugación transitiva, una vez reunidas todas las papeletas correspondientes.

Una primera clasificación nos da, tomando por principio clasificador el término de la acción verbal, ocho grupos: *me, te (v), te (h), lo, nos, a vos, a vosotros, los*.

Separaremos en cada grupo las formas *indialogadas* (1) de las *dialogadas*. Y cogiendo el de las indialogadas del grupo *los*, veremos en lo que hagamos de él, lo que hay que hacer de los demás.

Separaremos en el grupo *los* todas las formas de presente, reuniéndolas en un manojo; en otro las de preferito imperfecto, etc.

En el manojo correspondiente al presente (lo mis-

(1) Llamo *dialogadas* (sin que me satisfaga la denominación) a las formas en que se significa que se está teniendo presente a un interlocutor; v. g.: *díat, diñagu, etc.*; *indialogadas* a las que prescinden de tal denotación; v. g.: *det, degu*.

mo dígase de los demás), sepáremos las de indicativo, imperativo, etc. Es decir, clasifiquemos las papeletas del presente, atendiendo al modo.

En el montón, v. g., correspondiente al indicativo, introduzcamos la clasificación, atendiendo al sujeto (yo, tú v., tú h., él; nosotros, vos vosotros, ellos): nos dará ocho secciones. El denominador común de las papeletas correspondientes a la sección *yo*, v. g., o sea la etiqueta ideológica de todas las formas de la sección *yo*, será ***los-yo***.

Bajo este epígrafe ha de venir el desfile de las formas halladas. Pero pueden ser muchas. ¿Cómo ordenarlas? No por el núcleo. De lo que éste pueda representar ideológicamente, hay que prescindir en absoluto en esta parte del diccionario; porque lo que queremos estudiar y dejar registrado en ella es únicamente la ideología *conjugativa*, cualquiera que sea la acción verbal sometida a su juego, con las formas que la expresan en euskera. Y como la diferencia de formas correspondientes a una etiqueta ideológica proviene de los afijos que las integran y del orden de su colocación, a eso atenderemos al exponerlas bajo cada etiqueta, cuidando de que cada forma absoluta vaya acompañada de sus declinadas y regidas respectivas.

A parte de esta última clasificación, todas las demás puede fácilmente hacerlas cada uno con las papeletas que haya sacado de la obra que tomó por su cuenta, antes de enviarlas a los ficheros de la Academia, con lo que se aligerará considerablemente la labor de los que hayan de redactar el diccionario.

2.^a parte.—Conjugación perifrástica o auxiliar

Una forma verbal perifrástica no es más que un consorcio de una forma simple impersonal de un verbo con otra, también simple, pero personal, del verbo a quien se recurre como a auxiliar. Según que la forma personal o auxiliar sea transitiva o intransitiva, el consorcio constituirá una forma perifrástica de conjugación transitiva o intransitiva. El auxilio que de esta forma personal recibe la impersonal, consiste en que no entrañando la impersonal más significado que el de la idea específica del verbo, y el de tiempo (presente, pasado o futuro), la impersonal le aporta todas sus consignificaciones de sujeto, término, modo, etc... Por consiguiente, el doble problema, *dada una forma perifrástica, hallar la idea conjugalional que expresa*, y viceversa, *dada esa idea, hallar la forma que la exprese*, quedará plenamente atendido, con que en esta parte del diccionario queden metódicamente registrados los materiales de comprobación suministrados por las papeletas, en orden a ponernos de manifiesto entre qué categorías de formas impersonales y qué categorías de formas auxiliares establece el euskera estos consorcios, para que resulte la correspondencia buscada entre una idea conjugalional y su expresión perifrástica, sin necesidad de que se repitan de nuevo todas las formas auxiliares.

El procedimiento que encuentro más expedito es este.

Reunidas todas las papeletas de formas perifrásicas, clasificarlas según todos los tiempos de la conjugación, prescindiendo de si son puras o mixtas, transitivas o intransitivas, y las de cada grupo así

obtenido clasificarlas según los modos (indicativo, subjuntivo, etc.). De estos últimos grupos se eliminan todas aquellas papeletas que no responden a una de estas tres cuestiones: 1.^a A un tiempo determinado de un modo determinado; v. g.: al pretérito imperfecto de indicativo ¿qué forma impersonal (la de pasado?, presente? o futuro?), y qué tiempo y modo por parte de la forma auxiliar le corresponden? 2.^a Cuál y cuándo de estas dos categorías de formas (impersonal y auxiliar) puede o debe ir delante en el consorcio? 3.^a Cuáles son los verbos, o mejor dicho, los núcleos verbales que prestan a otros sus formas simples o auxiliares? y si indistintamente todos sirven para todos los tiempos y modos, o quiénes para cuáles?

Y conforme a estas informaciones que nos ha de suministrar en esta parte nuestro diccionario, habrá que ordenar las etiquetas ideológicas de nuestra sección, y bajo cada etiqueta los materiales acopiados.

3.^a parte

Mientras en la sufijación *-e + a* deviene *ea* (*etxea*, *larea*), en el verbo hay casos en que pasa a *ia*; v. gr.: *daukiat* (de **daukakat* > **daukekat* > *daukeat* > *daukiat* y hasta *deála*, *diála* por *detala*, *dedala*).

(1) Esta misma evolución de vocal + *u* + cons., > vocal + cons., se halla en *larogei* (guip. com.), *erok*, *erek* (Legazpia) por *eurok*, *eurak*. En *erek* perdura la apofonía producida por la *u* aun después de su elisión.

Lo propio sucede con la combinación *-e + e*, que en derivación se contrae en *ê*, *uméntzat* (véase página 97), y que en la conjugación deviene *ie* por disimilación del elemento primero : *daukie* (de **daukate* > **daukete*, *daukee*), *lukie* (*lukete* > *lukee* > *lukie*), *naikie*, (*nagikete* > **naikete* > *naikee* > *naikie*), *zendukie* (de *zenduke(t)e*). Un fenómeno análogo, pero de disimilación del segundo elemento, tiene lugar en la región de Isasondo y Zaldivia, donde se oye *lukea*, *zendukea*, *daukea*, etc. (*ee* > *eä* > *ea*).

El verbo *jun (joan)* introduce su *j* con frecuencia en las flexiones, especialmente en las terceras, *dijô*, *zijôn*. En estos casos el grupo *oa*, aun al final del vocablo, pasa a *ô*, con tal que el vocablo tenga por lo menos tres sílabas : *dijô* pero *doa*, *i ijô*, pero *i oa* (1). En imperfecto presenta variantes con *-nd-* parecidas a las labortanas *ni nindôñ* (por *nindoan*), *gindôzen* (por *gindoazen*), etc.

El verbo intransitivo aparece muy defectivo en esta compilación, puesto que muchos de los regímenes parecen haber caído en desuso, especialmente las flexiones que tienen la segunda persona por sujeto; v. gr.: *zatzai* «tú a mí», *zatzayo* «tú a él», *zatzaizkio* «vosotros a él», *gatzaizkizu* «nosotros a ti», etc.

Zâ, gâ parecen ser contracciones de *zara*, *gara*, aumentando así el número de analogías con el vizcaíno. En el imperfecto es corriente la elisión de la *-n-* : *nitzen*, y las personas segundas de singular y primera de plural tienen como curiosas variantes *zinden*, *ginden*, que acaso han surgido por inconsciente aplicación de la modificación del grupo *ñ* en *nd* : *niñuzun=ninduzun*, *zindudan=ziñutan*.

(1) También *darô*, *narô* por *daroa*, *naroa*,

EUSKALTZAINDIA'REN

BOSTGAÉREN URTEKO BATZAÉAK

Donestebé'n (Naparroa), Udal-etxean, 1923'ko Agoá'ren 8'an.

Azkue maipuru dutela euskaltzain abek bildu dira: Kanpion, Olabide, Landefetxe, Eguskitza, Altube, Intza, Lakonbe ta urgazletatik Bahr jauna.

Otoitzez asi da batzaíaldi au.

Maipuru jaunak Eleizalde euskaltzain argia zanaren eriotzaren beri dakar, ta gizon azkar zanaren oroitza mintsua egin du itz samur ta egokiaz.

Mintasunaren negar-negárez Euskaltzaindia altxa da ta ildako lagun maitearen alde otoitz Jainkoari egin-da amaitu da batzaíaldi au uéengo egunean Meza batera joateko asmoz.

Donestebé'ko Udal-etxean, 1923'ko Agoá'ren 9'an.

Auréko batzaíaldian aipatu diran euskaltzain berak bildu dira eta, ona artu diran erabakiak.

1. Euskaltzain-lagunaren utsuna, araudiak dion bezela, iragartzea erabaki da.
2. Gazteiz'ko apezpiko jaunari zorionik bikañenak eman bear zaizkio bere *Pastoral* lenbizikoz euskeraz idatzi ta zabaldu duelako,

3. Aita Eskolapioak Bera'n, Napañoa'n, daukaten ikastolaren Batzar-Artezkariari eskari abek egin bear zaizkio: Ikastolako aita apaizen artean euskaldun bat edo bi izan ditezela, au da, euskera dakitenak. Elizkizunetan ibili dezatela euskera al duten txanda guzietan. Ikastolako ikasbidetan, gutxinan bederik kristau-ikasbidean ta irakurpen batzuetan euskera erabili dezatela.

4. Eskari berdiña egin bear zaio Donestebe'ko Ikastola bati. Badira emen Monja irakasleak, ta oien artean ez da iñor euskera dakienik. Aben Zuzendariai eskari au egin bear zaio: ekaři ditzala eři ontara bi monja euskaldun len dauden erdeldunen ordez. Ořela egingo balitz, eřez eman lezakete euskerazko dotriňa eta zer edo zeren irakurpen.

5. A. Lezo'ri erantzun bear zaio, Euskaltzaindiak txosten ona eman lezakela bere lan *Nere lagun*—ez, bañan ezin lezakela eun liburu artu Gazteiz'ko apaiz—gai artean banatzeko. Aldi batez esaten zaio, len emandako mila peseten zořa oraindik ere ordaintzeta—ko, luzatzen zaiola.

6. Lakonbe jaunaren bitartez Euskaltzaindi onek artu du idazti bat «Bretañaiko izkeltzañak ango idazleai egiten dizkien oařak». Onetxeri erantzutea Lakonbe berari egotzi zaio.

7. Aita Karmeldar batek Euskaltzaindiaren azterpean jartzen du berak idatzi edo euskerara itzuli duen *Imitación de Cristo*. Euskaltzaindiak lan ořen azterketa urgazle diran Manterola ta Ibargutxi jaunai ego—tzi die fa oiek zer txosten eman, ala izango da Euskaltzaindiaren egikizuna.

Bilbo'n, Euskaltzaindiaren etxean, 1923'ko Urriaren 30'an.

Azkue jauna maipuru dutela euskaltzain abek bildu dira: Urkijo, Landetxe, Eguskitza, Altube, Intza, Lakonbe ta urgazletatik Bahr eta aita Polikarpo Iraizoz. Araudi-otoitza egin da.

1. Azkue jaunak bere lan eder *Morfología* irakuři du. Lan edeňa dala euskaltzain guziak aitortzen dute ta beren lagunbidea ere Azkue jaunari damaiote. Irakuři bezela, autuan ipintzen da irakurtzen dana ta guzia ondo zeaztu-ta begiratzen da. Ala bear ere lan gařantzidun onek.

2. Eguskitza jaunak Donesteben irakuři zuen Elkano'ko Lizařagaz lan eder bat ta ez dago zer esanik txalorik beroenak beregantzu zituela. Oraindik ere osatu du lan uraxe, Lizařagaren idazkietatik aditzari dagokion eran jasorik.

Osapen au irakuři du ta euskaltzain guziak abo batez zorionak agertu dizkiote.

3. Bahr urgazle jaunak adirazten du Gipuzkoa-goi guzian ibili dala *Erizkizundi-Irukoitza* lanak geitzen ta ango euskal-aditza batez ere entzun ta aztertzen. Bildu difula, dio adizkera entzungariak. Guziak jaři difula idatzita lan ortarako egin diran gutunetan ta euskaltzañak auxe entzunik eskeřak eman dizkiote ta auřerantzean lana egiteko bultzabide.

Bahr jaun berak «Primicias de la Lengua Vasca» deritzan Schuchardt jaunaren lan ederaren beri eman die Euskaltzañai ta idazki ořen itzauřea irakuři.

Beste gai batzuek bigarko utzita otoițez amaitu da batzaŕaldi au.

Bilbo'n, Euskaltzaindiaren etxean, 1923'ko Uŕi-la'ren 31'an.

Auréko batzaŕaldian aipatzen diran euskaltzain berak bildu dira.

1. Aita Intza'k Euskaltzaindiari eskari bat aurkeztu dio. Ondo dakite euskaltzañak gaur dan egunean len baño askoz geiago euskeraz idazten dala. Au guziontzat pozbide aundia da bañan aitortu bear du ordea izketan ari dan euskaltzañak, ez dutela euskal -irakurleak idazleen lan onuragarí ori bear bezela erantzuten; itz batez: irakurle euskaldunak bear dirala. Ortarako euskal-irakurle baltzu bat, aldan aretàz, iratsi bear litzake. Asmo onek Euskaltzaindiaren onetsia berekin darama ta oni dagokion arlo auxe, orain sortu dan «Euskeraren adiskideak-i» egotzi bear zaiola deritzaio.

2. Lakonbe jaunak irakuři du *Academie Bretonne*-ri biali bear zaion agur-erantzupena. *Academie* onek bere agurá, aldi auŕetik biali zion gure Euskaltzaindiari ta onek bere izateari dagokionez erantzun bear zion. Onetsi du bada Lakonbe jaunak egin duen idazki-erantzupen ori.

3. *Eskutitzak*. Asko irakurfi dira baña geyen Euskaltzaindia arduratu duena Habanatik artu duen *cablegrama* bat izan da. Anglo *Centro Vasco* deritzan Baltzu-Zuzendariak agur bero bat Euskaltzaindiari bialtzen dio bere arazoen lanak asi dituen garayan.

Ezago zer esanik, Euskaltzaindiak biotz beteko agürez erantzun diola.

Ta beste gairik izan ez da, otoitzez amaitu da bazaŕaldi au.

**Donosti'n, Aldundi-Jauregian, 1923'ko Azaroa'
ren 22'an.**

Batzaŕaldi ontara aipatzen diran euskaltzañak datoz: Azkue maipuru, Urkijo, Lakonbe, Landeretxe, Konstantin, Intza, Eguskitza, Altube ta Intzagorai eta urgazletatik Bahr jauna.

Araudiak agintzen duan otoitza egin-da asi da bazaŕaldi au.

1. Aita Intzak irakurí ditu Napañoako Aldundiari igoiri nai dizkion bi idazki, Etxarri-Aranaz ta Donestebe'n izan diran euskal-egunen beri emanik ta batez ere adierazirik zenbat onura ekaři dien toki oietako euskaldunai euskal-egun oiek; ta zertan eralki diran sorospideak. Euskaltzaindiak onetsi ditu idazki oiek.

2. Euskaltzainburuak esan du: Bilbo'ko Udalak orain arterañoko sorospidea euskaltzaindiari emango diola: Aldundiak ordea uritu du berea ta datoñen urterako 5.000 peseta bakařak emango ditu. Arazo ontan, Azkue jaunaren iritzi onena auxe litzake: *Comisión de Hacienda* deitzen dan baltzuari itz egin, geyagoko sorospidearen eskabidez, oretarako Etxegorai Karmelo jauna bitartekotzat jaři-ta.

3. Euskaltzainburu berak esaten du: Donestebe'ko euskal-egunen ondoren angoxe alkateari idatzi zitzaio-

la, eři ortako ikastetxean euskera sařerazteko eskabidez, bañan ez duela alkate jaun ořek ezerfxo erantzun. —Bergara'ko *Enseñanza* deitzen dan ikastetxeak auxe erantzun du: iñork ez duela euskal-ikastaroaren eskaririk egiten ta ořegatik ezin jaři ditekela. —Beriz'ko ikastetxetik ez dute ezer erantzun; Zumaya'kotik ere ez.

4. Kisaldatzea orain egin bear da. Ofetarako autarkitara jo da araudiak agintzen duenez, ta lenengo aukeratu bear dana Euskaltzainburua da. Onela datozi autarkiak:

Azkuek-9

Utsean-1

Uřena Zadorlarigoa jo da autarkitara. Auxe dator:

Intzagorai-ek-9

Altube'k-1

Beriala dator Diruzayaren aukerapena ta autarkiak auxe dakarte:

Altube-8

Eguskitza-1

Urkijo-1

Iker-saileko buruzagia aukeratu da uřen ta kisa onen autarkiak onela datozi:

Kanpion-entzat-8

Urkijo-entzat-1

Lakonbe-entzat-1

Jabon-saileko buruzagia aukeratu dā autarki abetaz:

Aita-Intzak-7

Eguskitzak-2

Urkijok-1

Azken, Gutunzayaren aukerapena autarkiz onela dator:

Lakonbe-ri-9

Urkijori-1

Beraz uñengo bi urterako Euskaltzaindiaren kisagoa auxe izango da:

Euskaltzainburu: Azkue

Iker-sail buru: Kampion

Jabon-sail buru: aita Intza

Diruzai: Altube

Gutunzai: Lakonbe

5. Eleizalde euskaltzain maitearen ordez beste bat aukeratu bear da. Araudiaren aginduz, Azkue, Kampion ta Urkijo jaunak Etxegarai Karmelo jauna Euskaltzain-gai aurkezten dute. Beste euskaltzañak ez dakarte iñor. Autarkitara jo da ta autarkiak onela datozi:

Etxegarai Karmelok-9

Utsean-1

Etxegarai jauna beaz, auérantzean, euskaltzain izango da. Beronek aukeratuko du saérako eñia ta bertan egingo duen itzaldia Eguskitza jaunak erantzungo dio.

6. Euskalkiai dagokien *Mapa* bat egitea Euskaltzaindiak erabaki du.

7. Bahr jaunak Schuchardt jakintsuaren iritxi bat agertu du. Aburu ori euskal aditzari dagokio. Schuchardt jaunari deritzaionez, euskal aditza *pasivo* da. Bahr jaunak olbeltzean egin ditu iritxi oñen adibideak.

Beste gai batzuek bigaramonerako laga-ta, oiturazko otoitzez batzáraldi au amaitu da.

Donostia'n Aldundi-Jauregian, 1923'ko Azaroa ren 23'an.

Auñeko batzañaldian aipatu diran euskaltzain jaun berak alkietan daude eta urgazletatik Bahr eta Ormaetxea jaunak.

1. Bahr jaunak jañaitu du bere itzaldia, Schuchardt jaunaren aburua azaldurik. Amaitu duenean Eguskitza jaunak erantzun dio ta bere itzaldian agertu du ez dala euskal-aditza beñere *pasivo* izan *activo* baño. Eguskitza jaunaren itzaldia gure *Euskeran* azalduko da.

2. Azkue jaunak bere lan bat irakuñi du: *Antzinako erderat a eguneko euskera*. Euskaltzañak pozik entzun diote.

3. «Paradigma de declinación vasca» deitzen dan lantxo bat azaldu da euskaltzain artean, abek ikusi, aztertu ta beren eritxia ager dezaten.

4. Kanpion jaunak Napar-egunari batek dakañen idazki bat irakuñi du. Idazki oñen gaya auxe da. *Osto ta orri euskal-itzen banakoitza*.

5. Ormaetxe urgazle jauna Euskaltzaindiak deitu du lan batzuek ekiteko. Oraingoz, *Erizkizundi-Irukoitza*-ri dagozkiona egotzi zaio. Lanaren eraz emanago zaio saria, bañan ordaindu bear zaizkio beriala lan oñek beregan dituen joan-etoien eralketak.

Beste gairik izan ez da, amaitu da batzañaldi au oiturazko otoitzez.

Donosti'n, Aldundi-Jauregian, 1923'ko Lotazila' ren 20'an.

Egun ontan izan diran batzaretara euskaltzain abek datozi: Azkue maipuru, Urkijo, Kämpion, Lakonbe, Landeretxe, Intza, Altube, Eguskitza, ta Intzagarrai. Urgazletatik Ormaetxea jauna.

1. Etxegarai Karmelo euskaltzain aukeratuaren ezkutitz bat irakuŕi da ta eskutitz oŕetaz eskeŕak ematen dizkio Euskaltzaindiaren bere baŕengo laguntzat aukeratu duelako. Saŕerako itzaldiaren gaya aipatzen du ta bere gogoz auxe izango litzake: *Mogel anaiak euskeraren alde egin dituen lanak*. Saŕera jaya izan liteke naiz Azpeiti naiz Bergara'n. Euskaltzain batzuek Bergara daukate begiz joa, batez ere, Eleizalde gure lagun maite zana angoxea zalako ta egokien dirudielako, ildakoen eŕia aukeratzea jai ontaroko, Broussain jaunaren aldian egin zan bezela. Ez da ezer erabaki, idatziko zaio Etxegarai jaunari erabili dan iritxia ta geroago erabakiko da.

2. Euskaltzaindiak oraindik ere eman nai lioke Eleizalde euskaltzain argi zanari bere maitetasunaren ageŕaldia. Ontan, euskaltzain guziak gogo bero batez dabilz. Maitetasun-ageŕalditzat auxe erabaki da.

Sari-bat irasten da, *Eleizalde* izentzat eramango duena. Sari-batzaldira gaurtandik deitzen dira idazle euskaldunak. Sari au 500 pesetakoia izango da ta auxe bere gaya: Euskalherriko lutelesti edo geografia. 100 oŕi inguru izan bear ditu lutelesti oŕek. Lan ortaroko urte beteko epea emango zaie idazleai ta euskaltzain diranak ezin sartu litezke batzaŕaldi ortan; urgazleak bai.

3. Aita Intzak irakuři du bere aita Nagusiak berari igortzen dion idazki bat, esanik Euskaltzaindiak gora jo bear luketa oraingo Agintariakgana, euskeraren alde, eliz, ikastetxe ta erietan egin bear litzaketen eskabidez. Urkijo jaunak esan du: gai oñtan ta asmo beretan oraintxe dabilela Eusko-Ikaskuntza ta obe litzakela Eusko-Ikaskuntzaz batu eskabide oriindar audiagoz egiteko. Baietz deritzate euskaltzañak ta orixe erabaki da.

4. Aita Intza berak aitortzen du: Bidaso-aruzko *Euskal-Biltzarak* lan bereziak darabilzkiela euskeraren alde ta oregatik zorion beroak azaldu bear zaizkiola. Baietz dio Euskaltzaindiak eta zorionak igoñiko dizkio. Garai auxe aukeratzen du Euskaltzaindiak bereziz adierazteko: Euskeraren alde dabiltzan guzai, zerbaiten sorospidea, berak al duenez, emango zaiela.

5. Lakoizketaren jaiotetxeán oroitaři bat jaři nai litzake. Oretarako Euskaltzaindiak dirubide bat banatu nai luke, berak 50 pesetas asiera emanik.

6. Kampion jaunak bere lan eder bat irakuři du ta bigaramonean jařaitzekeo gelditu da. Lanaren gaya auxe da: *El vascuence y el antiguo egipcio*.

Ta beste gai batzuek uřengo egunerako laga-ta otoitzez amaitu batzařaldia.

Donosti'n, Aldundi-Jauregian, 1923'ko Lotazi-la'ren 21'an.

Batzar ontara datozen euskaltzañak abetxek dira: Azkue, Kampion, Landeretxe, Lakonbe, Urkijo, Intza, Altube, Eguskitza ta Intzagorai. Urgazletatik batez.

1. Kanpion jaunak jaŕaitu du bere lanaren irakurpena: *El vascuence y el antiguo egipcio*.
2. Euskaltzaindiaren urte buru ontako diru artuemanen gora-berak ta datoŕenerako *presupuestoa*. Arlo au ez da batere ikutu. Gipuzkoako Aldundiak zer emango duenen zai egon bear da egikizun au betetzeko ta onbeárez datoŕen batzaŕaldirako laga da.
3. Azkue jaunak bere lan eder *Morfología Vasca* irakurí du.
4. Urkijo jaunak beriz Landeta jaunaren idazki bat. Idazki au Landetak Eusko-Ikakuntzari egin dio.
5. Napaŕoako Aldundiak urteroko sorospidea Euskaltzaindiari emango diola aita Intzak iragarí du.
6. Azkenik, ezkutitzak irakuŕi dira ta oien artean Etxegaray jaunak Marco-Gardoki-ri bidali diona ta Bergara'ko ta Zumaya'ko Lekalime-ikastetxekoak.
Ta beste gairik izan ez da otoitzez amaitu da batzaŕaldi au.

1924 GARÉN URTEA

Donosti'n, Aldundi-Jauregian, 1924'ko Ilbeltza'ren 24'an.

Bildu diran euskaltzañak abetxek dira: Azkue maipuru, Kanpion, Urkijo, Landeŕetxe, Intza, Lakonbe, Altube ta Intzagaray; urgazletatik batez...

Oiturazko otoitza egin-da asi da batzaŕaldi au.

1. Árasateko apaizburuari eskatu bear zaio, Euskaltzaindira bidali ditzala gau-gurtzaliak egiten dituzten otoitzak. Euskaltzaindiak pozez banatuko ditu euskal-elizetan.

2. Aita Intzak dasa : Iruñako euskal-ikastaroak ondo dijoazela. Gañera dasa : Lakoizketa jaunaren oroitaría jartzerako zerbaiten egitamua Narbarte'rako egin bear litzakela ta bere iritxia auxe : a) elizkizun bat; b) oroitaríaren ezarketa; d) Lakoizketaren oropenez itzaldi bat. Áratsaldean beriz, areto-jai bat, abek gaibide artu-ta : a) batzaldia, zeñek lore-izen geiago esan; b) sari bat, euskaleŕikoa alderdi-izen geyenak aipatzen dituenentzat; d) beste sari bat, Bertizaraneko efeka ta osin izen-geyenak esaten dituenentzat; e) pilotak; g) olerkiak; i) euskal-abestiak. Euskaltzaindiak ontzat artu du egitamu au.

3. Altube jaunak, diruzaia danez Euskaltzaindiak joan dan urtean artu ta eralki dituen dirutza guzien beri eman du. Euskaltzainburuak dio : sorospideak gutxitzen dijoazela ta oso bideko litzakela, euskaltzain bakoitzak, bere inguru bizi diran euskal-aberatsen izenak batzaráldi batera ekartzea, abei sorospide bat eskatzeko asmoz. Ontzat artu dute lenbizikoz beste euskaltzañak bañian alpeŕikakoa izango ote dan baten batek aitortzen du, euskal-aberats oiek eskabidez beste alde askotatik aspertuta diralako. Diruzaia dionez ara emen aurtengo sorospideak :

Bizkaiko-Aldundiak	5.000	peseta
Guipuzkoakoak	10.000	»
Naparroakoak	3.000	»
Eusko-Ikaskuntzak	3.000	»
Bilboko-Udalak	2.500	»

Donostikoak	1.000	peseta
Bilboko Udalaren aurézki-		
kutxak	500	»
Len gelditzen diranak	7.014	»

Guzira noski.... 32.014 peseta

Arlo au ondo erabili ondoren, erabaki da: soros-pide geyago baldin ezpadator, batzaŕaldiak gutxitzea, oŕela beste beertasun batzuetarako diru geyago izan dedin.

4. Aita Intzak *margoz* itz egin du ta margo-mota askoren izenak dakarzki : Naparroan bilduak dira.

5. Kampion jaunak jaŕaitu du bere lan edeŕa irakurtzen : *El vascuence y el antíguo egipcio.*

6. Euskaltzaindiak erabaki du : Bahr jaunari, osatu duen *Erizkizundi* bakoitzagatik 6 peseta ematea. 60 bete ditu ta beaz 360 peseta emango zaizkio.

Ta beste gai batzuek bigaramonerako utzita otoi-tez amaitu da batzaŕaldi au.

**Donosti'n, Aldundi-Jauregian, 1924'ko Ilbeltza'
ren 25'an.**

Auréko batzaŕaldian aipatu diran euskaltzain berak bildu dira, Azkue jauna maipuru dutela.

1. Azkue jaunak bere lan eder *Morfología* irakuŕi du.

2. Euskaltzaindiak lendik erabakia dauka euskaltzain maite Domingo Agirre jaun zanaren olerkiak

argitaratzea. Olerki oiek eskatu zitzaitzkon Etxegarai jaunari ta beriz eskatu bear zaizkio, onen erantzupena ikusi-ta zerbaite erabaki dedin.

3. Erabaki du Euskaltzaindiak auxe : Aita Olabide aspaldi batzaŕalditara ez datoŕen ezkero beroni adierazi, atsekabez euskaltzain guziok nabaitzen degula bere utsa.

4. Ezkutitzak. Irakurí dira : Schuchardt, Etxegarai ta Narbarte'ko Udalarena.

Ta beste gairik izan ez da otoiitez amaitu da batzaŕaldi au.

Donosti'n, Aldundi-Jauregian, 1924'ko Otsaila'ren 28'an.

Batzaŕaldi ontan emen aipatzen diran euskaltzañak bildu dira: Azkue maipuru, Kämpion, Urkijo, Lakonbe, Landefetxe, Intza, Altube, Eguskitza ta Intzagorai; urgazletatik batez.

1. Azkue jaunak adierazten du: Bilboko Udal-Auŕezki-Kutxak 500 peseta emango dizkiola sorospidetzat Euskaltzaindiari: Gazteizko Udal-Auŕezki-Kutxak 150 peseta: Gipuzkoako Aldundi-Auŕezki-Kutxak 1.000. Donostiko Udalekoak ez duela ezer emango erantzun du. Bizkaiko Aldundi-Kutxari 2.000 peseta eskatu zaizkio ta oraindik erantzupenik ez da. Napaŕoakoak erantzun du oraindik asi beria dala bere arasoan ta lenbizikotz beintzat ezin ezer eman lezakela. Atsegiñez entzun dute beste euskaltzañak auxe ta sorospidea dakarkiguten guzai esker bereziak ematea erabaki du.

2. Ez da atsegin gutxigoz entzun orain datorena: Euskal-Burnibideko Batzar Nagusiak, emendik auerantzean, uririk emango die euskaltzañai, Bilbotik Donostira edo alderantzirako bear duten txartela. Txartel au lenbiziko mañakoa izango da ta ilean beingorako bakañik. Euskaltzaindiak agertzen dio Batzar Nagusi oñi bere bañengo eskerpenik sutsuena.

3. Eírenderiko Sanperio jaunak, Americara joatekoan, agindu zion euskaltzainburuari, ango euskalaberatsen izenak bialiko zizkiola. Sanperio jaunak bere agindua bete du. Azkue jaunak gañera adierazten du, Durangon izan dala, ango aberatsak Euskaltzaindiaren alde pitin bat berotzen.

4. Altube jaunak Gernika ta Leniz inguru dabiltzan esakerak ekañi ditu, bañan gerora obeto lan auxe betetzeko asmoz.

5. Lakonbe jaunak Ohienart-en atzotitzetan eta neurtilizetan atzemaiten diran aditz askañak gaibide artu-ta, lan bat irakurtzekotan zan bañan berak eskatutik ta osoagorik azaldu dezan, urfingo batzañaldi baterako laga da.

6. Narbarten, Lakoizketaren oroigarí egin bear dan jaiez itz egin da. Eri ortako Alkate jaunak dionez, obe litzake jai ori datoñen udara alderako laga, goizago gertupenak eragozpen batzuek izan litzakiteke-ta. Euzkaltzaindiak baiezkoa eman du ta oroitarien jaíri bear dan idazkia Irigarai jaunari egotzi litzaioke.

7. *Eskualduna* Baionako asterokoari, ume euskaldunen alde darabilzkien lanagatik Euskaltzaindiak zorionak agertzen dizkio. Alde artako *Euskal-Bil-*

tzaŕak gai ortan egingo dituen jaietarako Euskaltzaindiak bere ordeko Lakonbe jauna aukeratzen du. *Argia* Donostiko asterokoak beste zerbait ideko darrabilki. Oni ere zorion sutsuena te egin bear duen jaietarako Intzagorai ordeko izan bedi.

8. «Laziotaén izkera, antziñakoak nola ebaki zuten, gure izkera onek darakusgu». Auxe izan da Eguskitza jaunak irakuŕi duen lan ederaren gaia. Oraindik ere geiago osatzekotan gelditu da ta osapen ori, garaiz irakuŕiko dio Euskaltzaindiari.

9. Azkue jaunak bere *Morfología* bigarko lagata, Kampion jaunak bere lan ederaren *El vascuence y el antiguo egipcio*'en irakuŕpena jaŕaitu du.

10. Badira oraindik antzin-euskal-liburu zaŕak aztertu gabeak, adizkerak bilatzeko egin dan sayuan. Utsean daudenak betetzeko Ormaetxea urgazle jauna arazotu liteke.

Beste gai batzuek bigaramonerako utzi-ta oiturazko otoițez amaitu da batzatzaŕaldi aun.

Donosti'n, Aldundi-Jauregian, 1924'ko Otsaila'ren 29'an.

Auŕeko batzalaldian aipatu diran euskaltzain berak bildu dira, Azkue maipuru dutela.

1. Kampion jaunak amaitu du irakurtzez bere lan ederá: «*El vascuence y el antiguo egipcio*».

2. Azkue jaunak ere bere lan ederá dan *Morfología* irakurtzen jaŕaitu du ta euskaltzain batzuen oaŕak artu,

3. Aita Intzak dasa: Iruñako euskal-apaiz gayak *Erizkizundi-Irukoitzaren* 6 gutun bete dituztela eta zerbaitez ordaindu bear zaiela lan au. Ordañez gutun batzuek uŕerik bidaliko zaie.

4. Estenaga, Ciudad Real'go apezpiku euskaldunak Euskaleríko ikastolen alde Madrid'en zerbaitegutun lezakela-ta oŕetzaz Euskaltzaindiak itz egin du baňan ez du ezer garbi ta zeatz erabaki.

5. Ezkutitz asko irakurí dira ta oien artean Azpeitiko Udalarena, esanik, Etxegarai euskaltzain aukeratuaren saŕerako al dan guzia gertuko duela.

Ta beste gairik izan ez da, ofoitzez amaitu da batzaŕaldi au.

Donosti'n, Aldundi-Jauregian, 1924'ko Epaila'ren 27'an.

Batzaŕaldi ontara euskaltzain abek datozi: Azkue maipuru, Kanpion, Urkijo, Landeŕetxe, Altube, Eguskitza, Lakonbe ta Intzagarai; urgazlerik batez.

1. Euskaltzainburu jaunak iragartzen die beste euskaltzañai gure urgazle dan Kosme Elgezabal jaunak alegin egiten duela Durangon ango aberatsak berotzen, zerbaitei sorospide Euskaltzaindiari eman dezaioten. 300 peseta sorospidetzat etoŕi zaizkio Elgezabal jaun oŕen bitartez.

2. Badakite euskaltzañak Amerikara ezkufitz asko biali zirala, ango euskal-aberatsak ere, gai ontan, zerbaitei zuzpertzua naiez. Sanperio jaunak igoŕitako izen-leŕoz zuzendu dira eskutitz oiek.

3. Apaiz-gaien bilguma bat sortu da Gazteizko apaiz-gaien ikastetxean. Izentzat *Kardaberaz* darama. Bilguma oren zuzendariak idatzi dio Euskaltzaindiari, esanik: Bilguma-araudiz euskal-idazle-batzaldi bat urtero egitea agintzen dala ta auxe betetzeko on litzailkela Euskaltzaindiaren sari bat izatea, beronek idaz-gaya aukeraturik.

Erantzun bear zaio: gaya *Kardaberaz* bera izan litekela, bañan oraingoz, Euzkaltzaindiak ez diola sari txiki bat baño emango.

4. Lakonbe jaunak irakurri du bere lan egoki ta ederra: «Ohienari-en atzotitzetan eta neurtitzetan hatzemaiten diran aditz azkarak».

5. Berdin ere Kanpion jaunak bere lan sakona: «El vascuence y la lengua ibérica».

6. Azkue jaunak bere *Morfología verbal*.

Ta beste gai batzuek bigaramonerako laga-ta, otoitzez amaitu da batzañaldi au.

Donosti'n, Aldundi-Jauregian, 1924'ko Epaila' ren 28'an.

Auréko batzañaldian aipatzen diran euskaltzain berak bildu dira, Azkue maipuru dutela.

1. Urkijo, Kanpion eta Azkuek asi-ta, autu bat izan da euskaltzain artean; auxe gai: euskerak izan ote dituen edo ez erderak ainbat aldakuntza. Luze ta ederki itz egin da onetzaz ta bakoitza bere iritxian gelditu da.

2. Azkue jaunak bere *Morfología* irakuři du.

Ta beste gairik izan ez da otoitzez amaitu da batazaldu au.

Donosti'n, Aldundi-Jauregian, 1924'ko Jořaila'ren 24'an.

Euskaltzain abek bildu dira: Azkue, Kampion, Urkijo, Lakonbe, Landetxe, Intza, Altube, Olabide ta Intzagarai; urgazlerik batez.

1. Azkue jaunak adierazten du, Lekuona urgazleari Gazteizera idatzi zaiola, orain apaiz-gai artean iratsi dan *Kardaberaz* deritzan baltzua, zer dan ta zer elburu dakařen jakin bidez. Urgazle jaun onek ordea ez du ezer erantzun. Oregatik Euskaltzaindiak ezin lezake ořetzaz ezer erabaki.

2. On litzakela dio Azkue berak, Napařoako *Euskal-adizkideak*-i idaztea esanik gerturik egon ditetela oraingo Agintariak ultzen diran garairako. Orduan baltzu onek Euskaltzaindiak ainbat edo geyago egin lezake euskeraren alde.

3. Aita Intzak dio gogo aundiz ikusi duela Iruñako *Pensamiento* ta *Voz*-ek euskeraz oraindik ere idatzi nai dutela, Napařoan euskera dakitenak dirauten artean. Aita Intzak dionez, Euskaltzaindiak, laguntza ezařirik, arlo ortan sartu bear lukela.

4. Gañera adierazten du Aita Intzak berak Balezena ta Usetxi aldun jaunai beren iritxia eskatu bear zaiela, euskal-egunak beriro Napařoan egitekofan, edo bestela Euskaltzaindi berak idazki bat zuzendu

Gobernadoriari, euskalegunekiko asmoak agerturik ta Aldundiaren itzalpean egiten dirala gañera esanik. Euskalegunak egiteko eria aukera liteke edo Lekunberri edo Auritz edo Narbarte.

5. Iruñako apezpiku jaunari idatzi bear zaio, alegindu dedila, ango bañutiko lekaide ta lekaiameak darabilzkiten ikastetxetan euskera sañarazteko.

6. Azkue jaunak ontatik artu du oñ, Begoñako Apaizburuari idatzi bear zaiola, esateko: euskal-eliztañak diran tokietan euskal-itzaldiak egiteko, *Boletiñak* agintzen duan ezkeroz, agindu ori bete dezala bere Begoñako elizan.

7. Urkijo jaunak erderazko lan egoki bat irakurí du, *Iau arietako* jolatza gai duena, euskaltzain batzuek ontan argibiderik ematen oten lezaioketen jakiteko.

8. Aita Iraizoz-i idatzi bear zaio, bere lan-asieraren zai-zai gaudela ta agindu bezela, *Erizkizundi-Irukoitza*-ri ekin lezaiokela lenbailen.

9. Altube euskaltzañak, antzinako gutun batetik, euskal itz ta aditzaren adibide gañantzidunak jaso ditu. Gutun edo esku-idazti au Gernikako eliza batekoa da. Euskaltzaindiak erabaki du: Altube jaunaren lana gure *Euskeran* argitaratzea.

10. Kanpion jaunak uñengo batzaraldirako laga du bere lan baten irakurpena.

11. Azkue jaunak bere *Mortología* irakurí du. Ta beste gai batzuek bigarko utzi-ta otoitzez amaitu da batzaraldi au.

Donosti'n, Aldundi-Jauregian, 1924'ko Joñaila'
ren 25'an.

Auñeko batzañaldian izan diran euskaltzain berak bildu dira, Azkue maipuru dutela oitorako otoitzera egiñik.

1. Azkue jaunak bere *Morfología* irakurtzen jaíaitu du.
2. Aita Intzak Beriain-en dotriñan bildu dituen adizkerak azaldu ditu ta gañera liburu oñen zatiak ederki aztertu.
3. Urkijo jaunak esan du: Iztegiari, tarte-tarteka bildu litezken izen eta itz beri batzuek, ezarri lizazkio-kela. Bai ere iztegian azaltzen ez diran lengo itzarák. Euskaltzaindiak lan au arduraz artuko du.
4. Kanpion jaunak irakuñi du bere lan edera. «El vascuence y la lengua ibera».
5. Erabaki da: Daranatz urgazleari idaztea, gal-deturik ba ote dan iñqr Bidaso-Aruntz *Erizkizundi-Irukoitza*-ren lana egin dezakenik.
6. Ezkutitzak: Batzuek irakuñi dira ta oien artean Etxegarai jaunarena esanik: bere euskaltzain saérako itzaldia laxter bialiko duela.
Ta beste gairik izan ez da otoiñez amaitu da batzañaldi au.

Bizkai'ko euskeraren eta, batez be, bere adizpiakeraren aldakuntzak

Gai au nik ez dot autu: onetzaz zerbait idatzi nengiala Euskaltzain-buruak eskatu eustan lengo ileko batzaŕa baño egun gitxi batzuk lenago. Egun aetan asti gitxi neukan eta lan au oraingo batzaŕ onetarako itxi neban. Orain be, zoritxaŕez, gauza andirik ezin esan daiket. Gai au bere zabalgo osoan erabili ta azaldu nai leukenak, Bizkai-euskalkia antziňa zelakoa zan eta gaur egunean zelakoa dan, eŕi batetik bestera dituan gora-bera guztiakin, osoro ta zeatz ezagutu bear izango leuke; baňa mende bi ta erdi, geyenez be, iru meudez atzeruntz jo ezkero, euskalki onetan idatziriko libururik ez dazaugu ta antziňago zelakoa zan, susmau bai bear ba-da, baňa ziur eta zeatz jakin ezelan be ezin geinke.

Euskaltzain-buruak Kapanaga zanaren Kristau-ikasbidea bialdu eustan. Au egiňaz Kapanaga'ren egunetatik aona Bizkai-euskalkiak artu, egari ta bere-tu dituan aldaketak neure lan onen gaitzat emoten eustazala dirudi. Au eŕezago da, ziňez; baňa lan au susstraiz osoro ta zeatz egiteko be, lenengo ta bein, Kapanaga ta beste euki doguzan idazle oro arduraz irakuŕi bear izango neunkez, eta gero, gaur egunean Bizkai'ko euskereak eŕi batzuetatik beste batzuetara daukazan aldeak zearo ezagutu be bai.

Kapanaga semez nongoa zan ez dakit. Mañari'ko abade (edo abade lagun) izan zala ta Tabira'ko urian izkelizti edo gramatikea irakasten iňarduala Kristau-ikasbide onen lenengo ingorían diño. Ikasbide au

erderaz eta euskeraz dago eta 1656 gañen urtean iraíri zan Bilbo'n. Gero 1893 gañen urtean Dodgson jaunak beríraíri eban Portugal'go Vizeu'n.

Mañari aldera joan-etoíri bat egin eta ango euskerrea aztertzeko astirik be ez dot izan: augaitik dakar-dan lan.au, nai ta ez, marketz eta zatikiña izan bear. Gorago aitatu dodan gai ori iraduz eta beingo baten aztertu ta azaltzeko zabalegia da-ta, muga estuagoe-tara dakarkeet onelan: *Kapanaga'ren euskereak eta gaur Bizkai'ko efirik geyenetan darabilgunak dau-kezan aldeak.*

Gramatika - irakasle izan zan Kapanaga jauna; baña dirudianez euskaliztia, Lazio'ko erdereearen gramatikea baizen ondo ez ekian. Kristau-ikasbide one-tan itzen alkartze edo joskera okeára sariegi agiri da. Esaterako:

...ofrecidu baeroen primiciac euren laungoico fal-soai (ded).

...erregutu daguiçula nigaitic laungoicoari (20).

Ceren emaiten daben gloria bere graciarean urtai-ten eztabenari (29) zor dogun penac (37) çordunai parkeetan eztabenac (49).

Esango dau beste Pater noster bat eta Ave Maria-bat Espiritu Santuari (123), eztau burua iñori era-cucico (139) t. a.

Joskerea-uts txikiagoak zenbat nai dakaíz; baña aitatu dodazan oñein idekoak be, lañegi. Uts oneik eriari entzundakoak direanik ez dirudit, berak bere kabuz egindakoak baño.

Saři askotan eriaren oguzkerea be-zelan idatzi ez ekialako-edo-zeatz ez dauskula aurkezten esango neunke. Kristau-ikasbide onen saéraran, *etse* edo *etxe'* ren ordez, *esean* eta *ecsagunsaac* diño, eta gero ostera, 106 gañen ingoskian: «bere *echean* artuten

dituçala». Deusat (ded) deusana (ded) deusut (29) deusagu (40) ta onelakoak auñez darabiltz. Egoci egotzi'ren ordez (ded), iasi iatsi'ren ordez (32), eranci (40) erantsi'ren ordez, eragoci (95) eragotzi'ren ordez, ereci (152) eratsi'ren ordez, ecin (128) etzin edo etzan' en ordez eta beste onelako batzuk be bai-darabiltz.

Bestelan, Durango aldean eriak egiten eban euskerea darabilela dirudi, eta gauza batzuetan beintzat, euskalizti-irakasle izan ba'litz baño be siñisgañago dala batek baño geyagok uste izango dau. Bere euskera ta gaurkoaren aŕtean dagozan aldeak ikusi daiguzan.

Lenengo adizpiakera edo aditz irabiatuan.

Bigaŕen, aditz irabiagean.

Azkenez, beste itz batzuetan.

Aditz-urgazle igarokoŕa

1. Adizpiakera oneik: *dituz*, *dituçan* saŕi darabilz; baña bein oŕein ordez *diçan* idazten dau. «Noc dauco charidade andiena? Mandamentuac obato gordetan-diçanac» (79). <*Deuscu*> auñez darabil; baña biŕitan lenengo u ori barik: descuenac (70) descuen (137). Gaur egunean be euskaldun batzuk iñoz baño saŕiago oŕelantxe oguzi daroez.

2. Norbaitek zerbait norbaitzuei egin dautsela adierazteko *deutsen* ordez «deuste eta deustee» darabiltz. Onelan; «Esaŕu, egingo deustegu oraziño angueruay?» (39). Eta santuen Riliquiai ce reverenczia cor deustegu? (42) çelan gueuc parcaetan deustegun gueure çordunai (4) (37) Ce oraziño esaten deuste zu santuay? (42) deieguin deusteču (68) esaten deusteču (69). Emaiten deuste gracia ordenaduai. Emaiten

deuste gracia ezconduai (67). Noraco bidea emaiten deustee (78) emaiten deustalaco viciza beste virtute guztiai (78) obedezietan deustenac eta respetoa educiten deustenac (gurasoai) (48). Geyenez aditz-era auxe darabil; baña batzuetan gaur erabili oi doguna be bai. Esaterako: Guraso naturalac cer zor deusee humeai? (48).

3. Aldi igaroan be oŕein ideko aditz-era bein gitxienez darabil: «Christoc parcatu eusten cruxifíqueetan ebeenai (151). Eutsazan'en ordez eusan eta «ginduzan»'en ordez guenduzan be idoro dodaz:... araco seme prodigoa aiteac emon eusan ondasunac galdu çituana (118) ...çinestan erredimido içan guenduzan (22); baña oneik iraŕ-utsak be izan daitekez.

Agintz-eran begi'ren ordez «begai» (103) diño bein: baña beste edonoz «<begui>» dakaŕen ezkerro, ori iraŕleen utsa dala agiri da. Alan bein: ecaun eguiću (155): beste bein gipuzkeraz bezela: arreçazu (153).

4. Menpe-eran, batzuetan «gi» sustrai edo guna osorik darabil: beste batzuetan, ez; batzuetan «da», beste batzuetan «de»: artzaŕe bako aditz-eratan, geyenaz «da» ipinten dau burizkitzat; artzaŕedunetan «de»; baña ori beti-beti eguiten dauan ala ez ezin esan daiket.

...egun ygaro daguidaçan, esan daguidaçan gauça guztiac (121) ur bedeineatua ártu daguianean (130). Mesa... ençun daguiçun (137) merecidu daiguçan (8) eztaguigula iuramenturic (8).

Ea icussi daigun çelan (23) Ezan daigun (80) etc.

Jaungoicoari erregüietan deusalat, gracia emon deguiola (90).

...occasioňoa emaiten dabenac bestec deguion (51).

...gero emon deigula bere erreñua (36).. yfini deguideen penitencia (119).

5. Aldi-igaroan, irugaén notiñari dagokiozan aditz-eratan, burizkitzat «l» darabil. Esaterako: eta errematadu eraguin eban iñor etorri eta gueiago emon *leguiian* baño lénago (114)... seme prodigoa... vior-tuçana ostera aiteagana bere esean artu leguiian criaducat (118).

Animo arreçaçu, alboco çauriari icusiagaz, *ceinda* irigui içan çan emeti urtein *leguiian* çure iustifica-zíñoac (153).

«L» ori barik, beste aldi bat, antziñako aldia, adierazteko darabil: «erioçaco orduan dagoanac beguiratu daguiala celan Christoc eriocea artu eguijan (sufrió) (150).» Lenengo notiñaz be gitxienez bein, auxe aldi osoro igaro au adierazo nai dau: Ni beccatariau confeseetan nachaco... eta çuri ayta espiritualorri, cerren bay *neguiian* pecatu.» (20).

Gaur aditz era ofeik «l» barik erabili oi doguz eta bigaén ikuŕpen onegaz, bein bez.

Orain erabilten dogun «geunskiona'ren ordez, Kapanga'k bein «guendusteeda» diño. = Ze reverencia eta devoçiño eduguico deustegu elexaco Imaginay? => Santuai eurai, ceinçuen imaginaac direan, emongo guendusteeda (41).

6. Âla ta eziña adierazo nai dauanean, geyenez «âl eta ezin» aditzari aurétki irasten dautsoz: baña iru edo lau bidař ez. Leicafraga'ren Testamentu Beri'an be auxe berau sañitxutan ikusi daikegu.

Aldaien (29) aldaiala, aldaguiala (109) aldaguijan (118) albadagui (155). Alneio (ded) al leian (33) ecin leiana (31) alleguiala (106) al guiñayan (24) ezin giñay (25) alleien, ecin leien (ded) alleuquean (51) al-baleie (69) alleicala (98) alleigüe (60). «Al» barik: esan çebeique burlaco berbaric, besterenbat mindu edo aserratu *daiana* (125) cerren confesadu daiez pecatu,

pena gueiago emaiten deusteenac (89) au alan içanic, erraz esan daiçu, bada, Jauma, çure escuoc eguin baninduen (154). Zalantzadun itauna egiteko, Axularr'ek lez Kapanaga'k be, aditzari «<z>»bat gañeratzen dautso... confiançea galdu dabenz,... sinistu dabeenz edo amesen baquetan (92 eta abar) deusenz (95) deusteenz (97) dituçenz (98) ebeenz (103) dauqueñenz, eztauqueñenz (113) euqueñenz (93) eta onelan beste askotan be bai. Gaur Bizkayan onelako aditz-erarik eriak, nik dakidala, ez darabil.

Aditz-urgazle igaro eziña

1. Norbaitzuei zerbait bai-dagokiela adierazteko, gaur-egunean erabili oi dogun «yake»en ordez «iate, iatee» idatzi eban Kapanaga'k. Esaterako: cerren ay (aei) deiengoiatee iaungoicoaren semeac (19, 50, 84) Zazpi pecatuai cegaiti dei eguiten iate beste guztien buruac? (73, 77).

Ze poderegaz eguiten da hau?—Sacerdoteai emon iatenagaz 65.

Sacramentalac esaten iateçanac (67) eta aguindua eguin eçarren etorriiaten dañuric (98), etc. Naz'en ordez nax (150) naxala (23) saritxu agiri da.

2. Aldi igaroan, «zan» en ordez cidin darabil batzuetan.. Leizañaga'k be «cedin» ugari darabil. Kapanagak ain oparo, ez; baña Siniskitz edo Kredian aditz-era au idatzi eban ezkerro, Bizkayan be eriak aurez erabilten ebala dirudi, «eta iaio cidin Maria Virguineaganic... jachicidin Infernuetara... erresucitadu cidin jlaen arterean» (6). Asikerako eskin-itzetan *cidin* ori, beste ikurpen bataz darabil. Ofrecidu bae-roen primiciac... auñera *igarocidin* tropeçabaga eu-reen Doctrinea (ded).

3. Agintz-eran, «bedi»ren ordez «bidi» idatzi, eban beti: «eguin bidi, santificadu bidi» (4, 36, 91, 115, 128).

Menpe-eran «dadi»ren ordez «didi» agiri da, batzuetan osorik, beste batzuetan laburututa. Esaterako; apartadu vadidi ocassiñoetarean (50): egon didila (36): galdu didin (153): artudin moduan (59): ulertudin moduan (146): ildin artean (123): santificadu dila (4): izan dila (36): ian eztila (58): ezin dinean (70): iraçarri dinean; ianci dinean (120). 148 gañen ingoskian «ioan deiteçala» diño; uñengoan, ostera, «egonditeçan».

4. «Ala ta eziña» adierazteko urgazle onegaz be, aditz auréтик «al eta ezin» darabiltz geyenez. Esaterako: ...ceyn, eta engañadu ezin leidin eta ez gu engañadu (25) eta ostera il ezin leitean moduan (33), ezin leite (54). Eta albaleite (salvadu) fedeagaz bacarric? (26). Ze remedio içan alleite (podrá) passiño oneen contra? (71)... celan iaio alçaatean 30 (pudo). Óraitzik bein edo bein «al» ori barik darabil. «Ain modutan cein fede au bagaric iñor ez iustu yçan ez salvadu leitean (26).

5. Ezpaidun itaunetan aditz oni be, besteari lez, «z» bat gañeratzen dautso: Ea egon denz... garbaitu iaqueenz... egon ceenz (103). Bein «denz»en ordez «daen» diño: Ea deseadu daben lagunari onrrea quendu... Ibilidaen traça esque quenduteco (110).

Orain, eta dirudianez aspalditxuan, «eskatu» aditza urgazle igarakoáz erabili oi dogu: Kapanaga'k urgazle igaroeziñaz darabil beti. «Escatu gaquiozan (35): escatu gaiteçan (35): zer escaetan gara (36): zeen esque zara (36, sæpius): zegati esqueetan ez çachacoz (37): esqueetan iacula (122, 129): escatu daquionean (123) escatu gaquioçala... Jaungoicoari (143): esquetan da sacerdotea Christo Jaunari (147): Jaun-

goicoari misericordien escatuco iaco (cristiñaua) (151). Añibaño'k be bere Esku-Liburuan eskatu'gaz urgazle au darabil ainbat bidaí. Aldi baten eñiak oñelan esaten ete-eban?

Beste aditz batzuk. Alde andirik ez dot idoro. «Daroala edo daroyala»ren ordez «daroeala» (109): doan edo doyan'en ordez doeán (87). (Esakun záretan be onanixe dago: Ardi bat doeán lekutik, oro); yatoíkezan'en ordez, iatordeçan (128) Batzuetan, «derecho (21) derechanac (39): beste batzuetan, dericheen (89). Gaur egunean be bietara entzun oi dogu. Gaur entzuten ez dana, au beste au da: «Arguiçagui iraxeguiac... eracusten dabee gura dabela aen Magestadeac *gagoçan* datorreneco ardura andiagaz... (141). «Ba-dazauzu»ren ordez, ba-çaucu (153) ba-çauçu (CLXIX) diño bein. Iraí-utsa izan daiteke; baña bearí ba-da, bakizu, bakazu eta esaten doguzan lez, ba-dazauzu' ren ordez, eñiak *ba-zauzu* be esaten eban.

Aditz-irabiagea

Erderatik aíturiko aditzik geyen-geyenak «du»'gaz amaitzen ditu.

Esaterako: consoladu (14) alcançadu (19) confesadu, professadu (21) obligadu (23) engañadu, ordendu (34) sustentadu (48) eta abarí. Orain banaka batzuk oñelantxe esaten dabez; baña geyenak: konsolau, alkantzau, etc.

Ten edo tan atzizkia ezaíten dautsenean be, orain erabilten doguzan lez barik, beste era batera darabiltz. «Urtaiten (29) emaiten (51) idaraiten (61) igaraiten (135) galeraçaiten (70) arçaitearren, emaitearren (30) Orozko aldean-edo izan ezik, gaur oñelan esaten diranik ez dot uste. «Erregüetan deusat (ded) parcaetan

deustegun (18) sinisetan dot (5) (Oraitzik bein, 24 gañen ingoskian, «sinisten» diño) iuzgaetan (11), aguiñetan dabenean (12) ytaneutan deusut (29) (Au irar-utsa dala uste dot eta «itaunetan» en ordez dagoala deritxat). Obraetan (24) ulerretan (24) uquetan (44) bedequeetan (49) lagunetan iacuz (55) adietan (55) estaletan (139) bidaletan (105) beguiretan (113) esqueletan (144) esquetan (146) echedeten (141) estuten (54).

«Ko» atzizkiaz, bañdin: emaiteco (11), galçaiteco (43), içaiteco (67), arçaiteco (81), idaraiteco (96), igaraiteco (96): lagunetaco (67), sinisetaco (76), ezconetaco (112), itaunetaco (47), *euteco* (25).

Gaur bapez edo gitxi erabili oi doguzan aditz batzuk.

«Euki'ren ordez «edugui» darabil beti: itxi'ren ordez geyenez «échi», iassarri (6 t a) jaichi (6) onstu (9, 51, 108) beatu (enterrar) (6), ecusi (16) uquitu (16) idoro (31) urtigui (50) inex-egin (70), inax egin (128) iraxegui (141) irigui (111) verantadu (114) iragaro (153) bedecatu (58).

Beste itz batzuetan agiri diran aldeak

Aditz-izenak. Içaite (28, 35 t. a.) içaitea (17), igañaitea (87, azereetea (46), parqueeta (147), esquetea (145), opaeta (54), salçaitean (109) galçaiteric (154), ezauteric (ded) ezaute (76) *eutea* (74): iaioeta (61) sendeeta (66) uqueta (104): iaiaquerea (134) sarçairea (144).

Beste izen batzuk: gau'en ordez egun (4), iabaac (19) iaba (83) erudia (27) abe (columna) (134), arena (tercio) (135), azea-caz (extraño) (84) gaztaena (lacticinio) (97), escurre-an (árbol) (82): apaac (104), aguiña eguin (98) aitea (27) amea (41). Erderatikoak:

becatarioc (5) erregutala (7, 42) pelibururic (12) miracuruz (30) apostru (20) Peri-(agaz) (20) afrontu (afrenta) (31) ledaniac (42) estatua (48) conozenzia (58).

Eraskiñak: cheena (ded) andrane (20) iandone, iaundone (20) ateticoacaz (60) ateti (69) exilic (63, 96 t. a.) ixilic (143).

Atzizkiak: beste gauçagati (ded) pecatuacgatic (29) becatarioc gaiti (5) señaleagaitic (4) ur bedeincatua gaiterren (131) onegaiterren (20).

«Ga» cunpliçaga (96) pagaçaga (77) eguinçaga (114).

«dako» humeendaco (ded) aendaco (18) dauquenendaco (32) iustüendaco (32) guztiendaco (35) lagunendaco (54) eclesiásticoendaco (87) secularendaco (87) elexeendaco (147) neuretaco (54) guretaco (116).

-rean, -etarean: biotz guztirean (3) arerioetarean (4) gacherean (5, 38) ilael arterean (6, 11) arean (andic) (6) ecerbere ecerean (28) bere graciarean (29) iru personetarean (30) pecaturean, eriozarean (31) oneetarean (39) salutacinorean (40) ussançarean (41) ocassinoetarean (50) orreetarean (57) eguerdirean aurrera (58) obligaciñorean (58) etorquizunetarean (62) leelengorean (63) (a los principios) merecimentuetarean (67) santuenetarean (67) gurasoetarean (71) virtuteetarean (78) guizonetarean (79) confessinorean (90) aciendarean (108) guztietaean (119) desastradurean (122) infernuerean (123) echerean (124) deunguetarean (126) cerurean (126) goxerean (128) bururean (138) idunerean (138) arterean (143) sepulturrean (145) biozerean (151) gorpucerean (152) areanic (88) ona: egotereanic (126, 41).

Porrals'en esakun záretan be-rean atzizkia sarí didorogu: baña bikoitza-«etarean», bein bez. Añibaño'k bere Esku-Liburuan-«reanic» dakaí iru-lau bidaí.

Beste itz batzuk. Sarítxutan «ez»'en ordez ce idazten dau:

echi ce eguioguzu (4, 38) echi çedaguigula (38) eguioguian (121) içan çedila (122) echi çedeguiala (123) echi çebeguio (124) esan cebeique (125) iocatu cevidi (126) echi cenaguiçu (155).

«Baña», «baya», bein be ez dakaíz; oíein ordez beti «baea»: «baño»'ren ordez, geyenez «baxen» (37) (Añibaíro'k be orixe egin eban bein baño sarriago) nolan (73, 60, etc.) zelan'en ordez: «obeto'ren ordez «obato» (55, etc.) causa utra andibaga (102) (ultra), eguntaño (119) veralan (149), erraz (ya) (148); eguartean (entre día), sacramentuez ostean (67) (a más de) baea oneçaz ostean (150). ¿cer bedequeetan da ilteaz ostean? (49), gauça guztiez ganeaní (77)... eta aguindua eguioguian ecarren, etorri iaten dañuric (98) «y si a causa de no haber cumplido lo mandado»... Gaur onelan ez geunke esango; agindua ez egiteaíen; egin ez dalako» edo beste onelako esakeraen bat erabiliko geunke ori adierazteko.

Aspaldiko euskal-idazlerik geyenak izenorde alkaíkizat «zein» auréz erabili dabe. Kapanagak be ba-darabil; baña oíen ordez saí «ceinda» idazten dau. Esaterako: igaro bidi bigarren partera zeinda da contricíñoa... igaraíten dabela Iesu Christo gure iauneen bondade fin bacoa, ceinda ofendidu daben (115). Eriak ez bata ez bestea ez ditu beretu.

Beste batzuetan «ceinda» ori askok erabili oi dabent «eze»'n ordez agiri da. Esaterako: ...pécatu mortal cheneen gravedadea eta pisua, dala ain andia, ceinda onen pagua eguiteco bear içan çan Christo gure iaun eta iaun goicoen odola... (116).

Azkenez, «ceinda» ori «lez, legez edo bezela»'ren ordez be ba-darabil. Esaterako: Guiçonac eguiogu-

guiela aen magestadeen borondatea, ain vioz ossoa-gaz ceinda angueruac ceruan (37). Eídelkeria dan ala ez ezin esan daiket; baña nai dala nai ez dala eritik ártua dirudi, gaur egunean be aurez entzufen dogu-ta.

Idoro dodazan aldakuntzarik andienak onexek dira; beste idazle batzuen lanak arduraz aztertu ez-kerro, euskerea, zetan áldatu dan eta aldatzeka zetan dagoan, zeatzago ezagutu al izango dogu.

EGUSKITZA.